

Kulturaren Euskal Kontseilua - Consejo Vasco de Cultura
KULTURAREN EUSKAL PLANA - PLAN VASCO DE CULTURA
Ikerketak - Estudios

Euskadiko Artisau Industrien azterketa

Kulturaren Euskal Kontseilurako Ikertaldeak egindako
azterketa

2005eko Azaroa



Euskadiko Artisau Industrien azterketa

EMAITZEN TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

 Fikertalde

AURKIBIDEA

Orrialdea

0.- AURKEZPENA	7
-----------------------	----------

I.ZATIA: ARTISAU AKTIBITATEAREN ENKOADRAKETA OROKORRA **9**

1.- ARTISAU SEKTOREA: OHARRAK ETA TESTUINGURAKETA	10
1.1.- INDUSTRIA ETA ARTEAREN ARTEAN: BIZIBIDE BAT	10
1.2.- ATZOKO AKTIBITATE BAT GIZARTE BERRI BATEAN: KULTURA HERRIKOIA	11
1.3.- SEKTOREKO ZEHARKAKOTASUNA ETA LURRALDEARI AINGURAKETA, NORTASUN ZEINU BEZALA	13
2.- ARTISAUTZAREN MARKO LEGALA	15
2.1.- ESTATUKO ENKOADRAKETA LEGALA	15
2.2.- ERREGULAZIOA EAE-n: ERRETRATU HETEROGENEO BAT	22
2.3.1.- Arabako Lurralde Historikoa	22
2.3.2.- Bizkaiako Lurralde Historikoa	25
2.3.3.- Gipuzkoako Lurralde Historikoa	27
2.3.4.- Dibertsitatea egiaztatuz	29

II. ZATIA: SEKTOREAREN ENPRESA PROFILA **32**

3.- SEKTOREA ZIFRATAN: ARTISAU ENPRESAK ETA ARTISAU ENPLEGUAK	33
3.1.- ARTISAU ENPRESA SAREA: PANORAMIKA OROKORRA	35
3.2.- ARTISAUAREN PROFILA	41
3.3.- SOLDATAPEKO ARTISAU ENPLEGUA	45
3.4.- PRODUKTUAK: ANIZTASUNA ETA BERRIKUNTZA	48
3.5.- EKIPAMENDUA ETA INSTALAKUNTZAK	52
3.6.- MERKATURATZEA	57
3.7.- KUDEAKETARAKO EKIPAMENDU TEKNOLOGIKOA	64
3.8.- BIRZIKLAPEN PROFESIONALA: FORMAKUNTZA BEHARRAK	67
3.9.- ETORKIZUNEKO ADIERAZLEAK	69
3.10.- ASOZIAZIONISMOA	71

4.- ERRETRATO LEHIAKORRA: LEHENENGO AURRERAPENAK _____ 75

4.1.- "EMOZIOZKO" BALDINTZATZAILEA _____	75
4.2.- ARKETIPOAK: ENPRESA SAILKAPEN BATI HURBILKETA _____	77
4.3.- BALIO KATEA _____	79
4.3.1.- Barne antolakuntza _____	79
4.3.2.- Produktua eta diseinua _____	79
4.3.3.- Establezimenduen ezaugarriak _____	81
4.3.4.- Merkaturatzea _____	82
4.3.5.- Lehiakideak _____	84
4.3.6.- Egoera Ekonomikoa _____	85

III. ZATIA: DIAGNOSTIKO SINTESIA ETA JARDUERA

PROPOSAMENAK _____ 87

5.- AMIA DIAGNOSTIKOA _____ 88

6.- SEKTOREAREN ETORKIZUNA BIDERATZEKO GILTZARRI DIREN ELEMENTUAK _____ 94

6.1.- ARTISAUTZAREN GIZARTE KONTEXTUA: JOKORAKO- EREMU BERRI BATEN AURREAN _____	94
6.2.- ENPRESA-MERKATUA BINOMIOA ESKAKIZUN BEZALA _____	95
6.3.- ARTISAUTZA ETA LURRALDEA: BALIOZTATU BEHARREKO BIKOTEA _____	96
6.4.- ARTISAU ENPRESA ETA PRESTAKUNTZA ESKAINTZA: ZUBIAK ERAIKIZ _____	97

7.- JARDUERA PLAN BATERAKO OINARRIAK _____ 98

7.1.- INSTITUZIO ARTEKO ARTISAUTZAREN FORO BATERANTZ _____	98
7.1.1.- Artisautzaren Mahaia: Aldaketarako erreflexio agenda _____	100
7.1.2.- Komite Dinamizatzailea –Proiektuen Faktoria _____	105

ERANSKINA:

SEKTOREAREN ETENGABEKO BEHAKETARAKO IRITZI METODOLOGIKOAK + ERABILITAKO SEKTORERA GERTURATZEKO GALDEKETA

KOADROEN AURKIBIDEA
Orrialdea
I. ZATIA: ARTISAU AKTIBITATEAREN ENKOADRAKETA OROKORRA

1. Koadroa	
Autonomia Erkidegoetako Artisautza Aktibitatearen Definizioetan espreski sartzen diren aspektuak	___ 18
2. Koadroa	
Autonomia Erkidegoen arautegian Artisau Aktibitate bezala bereziki kontsideratzen diren Aktibitate motak	_____ 18
3. Koadroa	
Artisau Enpresa bezala Onartua izateko Enpresek behar duten Tamaina	_____ 19
4. Koadroa	
Autonomia Erkidegoen Araudian Artisau Aktibitatearen Onarpenerako Beste Beharrezko Baldintza Batzuk	_____ 20
5. Koadroa	
Autonomia Erkidegoen Araudia	_____ 21

II.ZATIA: SEKTOREA ZIFRATAN

1. Koadroa	
Artisautza Sektoreko Enpresen Egitura eta Enpleguak Tamaina eta Aktibitatearen arabera. (c.a. eta %b.)	_____ 36
2 Koadroa	
Artisautza Sektoreko Enpresen Egitura eta Enpleguak Tamaina eta Luarralde Historikoaren arabera. (c.a. eta %b.)	_____ 37
3. Koadroa	
Artisau Sektoreko Enpresen Egitura Lurralde Historikoaren arabera (c.a.)	_____ 38
4. Koadroa	
Artisau enpresen forma juridikoa aktibitatearen arabera (%b.)	_____ 39
5. Koadroa	
Artisau enpresen forma juridikoa Lurraldearen arabera (%b.)	_____ 40
6. Koadroa	
Artisau Enpresen Titularen Ezaugarriak aktibitatearen arabera.	_____ 43
7. Koadroa	
Artisau Enpresen Titularen Ezaugarriak Lurraldearen arabera.	_____ 44

KOADROEN AURKIBIDEA
Orrialdea

8. Koadroa	
Soldatapeko enpleguaren ezaugarriak aktibitate, lanaldi mota, lan erlazio eta sexuaren arabera (c.a. eta %b.) _____	46
9. Koadroa	
Soldatapeko enpleguaren ezaugarriak Lurralde, lanaldi mota, lan erlazio eta sexuaren arabera (c.a. eta %b.) _____	47
10. Koadroa	
Egindako objetuen ezaugarriak aktibitate, landutako produktu lerroen eta berrikuntzen arabera (%b.) __	50
11. Koadroa	
Landutako objetuen ezaugarriak lurraldeka, lanutako produktu lerro kopuru eta berrikuntzen arabera (%b.) _____	51
12. Koadroa	
Establezimenduak Sektore eta Tailer eta Salmenta Areto (%b.) eta batzbesteko tamainaren arabera. _	53
13. Koadroa	
Establezimenduak Lurralde eta Tailer eta Salmenta Areto (%b.) eta batzbesteko tamainaren arabera.	53
14. Koadroa	
Ekoizpen ekipamenduaren ezaugarriak, vértice beharrak, dimentsio eta instalakuntzen egoera, asebetetze maila eta lekualdeketa planteamendua aktibitatearen arabera. (%b.) _____	55
15. Koadroa	
Ekoizpen ekipamenduaren ezaugarriak, vértice beharrak, dimentsio eta instalakuntzen egoera, asebetetze maila eta lekualdeketa planteamendua lurraldearen arabera (%b.) _____	56
16. Koadroa	
Erabiliriko merkaturatze kanalak eta beriaen garrantzia artisau enpresetan aktibitatearen arabera. (%b.)	59
17. Koadroa	
Erabiliriko merkaturatze kanalak eta beriaen garrantzia artisau enpresetan Lurraldearen arabera. (%b.)	60
18. Koadroa	
Merkatal tresna eta aktibitate publizitarioen erabilera aktibitatearen arabera (%b.) _____	62
19. Koadroa	
Merkatal tresna eta aktibitate publizitarioen erabilera Lurraldearen arabera (%b.) _____	63
20. Koadroa	
Ordenagailuaren jabetza eta erabilera eta enpresa barnean ematen zaizkion erabilerak aktibitatearen arabera (%b.) _____	65

KOADROEN AURKIBIDEA
Orrialdea

21. Koadroa
 Ordenagailuaren jabetza eta erabilera eta enpresa barnean ematen zaizkion erabilerak Lurraldearen arabera (%b.). _____ 66
22. Koadroa
 Birziklapen profesionaletako kurtsoetara doazen enpresak eta prestakuntza beharrak dituzten esparruak aktibitatearen arabera (%b.). _____ 68
23. Koadroa
 Birziklapen profesionaletako kurtsoetara doazen enpresak eta prestakuntza beharrak dituzten esparruak Lurraldearen arabera (%b.). _____ 68
24. Koadroa
 Aktibitatearen jarraipena, ondorengotza eta uztearen aurreikuspena eta ez uztearen kasuetan enpresa aurreikuspenak aktibitatearen arabera (%b.) _____ 70
25. Koadroa
 Aktibitatearen jarraipena, ondorengotza eta uztearen aurreikuspena eta ez uztearen kasuetan enpresa aurreikuspenak Lurraldearen arabera (%b.) _____ 70
26. Koadroa
 Elkarre profesionaletan parte hartzea, elkarrearen eskumen eremua, agrupazio sektorialetan parte hartzearen garrantzia eta inolako elkarreetan parte hartzen ez duten enpresentzat, arrazoia eta ea interesaturik egongo liritekeen informazioa jasotzeko edota beste artisau batzuekin harremanetan jartzeko, aktibitatearen arabera (%b.) _____ 73
27. Koadroa
 Elkarre profesionaletan parte hartzea, elkarrearen eskumen eremua, agrupazio sektorialetan parte hartzearen garrantzia eta inolako elkarreetan parte hartzen ez duten enpresentzat, arrazoia eta ea interesaturik egongo liritekeen informazioa jasotzeko edota beste artisau batzuekin harremanetan jartzeko, Lurraldearen arabera (%b.) _____ 74

0.- AURKEZPENA

Ondorengo dokumentuak aurreratze maila ezberdinetan dauden eta lau edukin esparru handietako **lanerako materialak** biltzen ditu: sektoreko zifra handiak, artisau aktibitatearen lege erregulazioa, lehiakortasun profila eta azkenik gauzatutako diagnosi sintesia eta jarduera proposamenak.

- Lehenengoak, **Sektorea Zifratan** lelopean, sektoreari zuzenduriko inkestak garaturiko atal informatiboak ikuskatzen ditu; dimentsionamendua, artisauaren profila, sorturiko soldatapeko enplegua, merkaturatzea, ekipamendu eta instalakuntzak, etorkizuneko aurreikuspenak, etab.
- Bigarrenak, **Artisau Aktibitatearen Marko Legala** titulupean, beheranzkoan – estatuko eremutik Lurralde Historikora- eta alderatzeko helburuarekin, nermatiba erregulatzailaren oinarritzko ezaugarriak aurkezten ditu.
- Hirugarrenak –**Profil Lehiakorra**- artisau enpresaren lehiakortasun erretratoaren eta balio katearen maila ezberdinen ezaugarri batzuk aurreratzen ditu.
- Laugarrenak eta azkenak **-Diagnostiko Sintesia eta Jarduera Proposamenak-** aurreko informazioak aztertzea du helburu, AMIA koadro moduan eta etorkizuneko lanerako lerro ezberdinak planteatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustaturiko eta IKERTALDE Grupo Consultor-ek garaturiko Euskadiko Artisau Industrien Azterketako Eraitzen Txostena, hiru zatitan edo informazio bloke diferentziatuetan egituratzen da:

- Lehenengoa, Artisau Aktibitatearen Enkoadraketa Orokorra, artisautzaren kontzeptuan murgiltzen da haseran, ekoizpen eta kultura dimentsioen artean dabilen aktibitate ekonomikoko sektore bezala; eta lurraldeari erroturiko elementu bezala. Sarturiko oharretatik eta proposaturiko ikuspuntuetatik abiatuz, estatuaren osotasunean sektorearen panorama erregulatzaila garatzen du, begirada Euskadiren kasuan zentratuz.

- Bigarrenak, -Sektorearen Enpresa Profila- sektoreko zifra handiak kokatzen ditu eta indikatzailerik ezberdinen bidez, bertako enpresa eta enpleguak karakterizatzen ditu. Honela marrazturiko sektorearen kontextutik abiatuz, mikroenpresen lehiakortasun erretratuan sakontzen da, balio kateko aspektu ezberdinak ikuskatuz -antolaketa eta kudeaketatik ekoizpen instalakuntzetara, diseinu eta merkaturatzeetik igaroz-.
- Hirugarren eta azken blokea sintesien diagnostikoa aurkeztu eta oinarriak ezartzera dedikatzen da, -proposamenak- etorkizunerako jardueraren plan batetarako.

Metodologikoki, asierazten diren iritzi eta informazioak hiru lanerako lerro osagarrien fruitu dira:

- Sektoreko mintzakide instituzional eta informatzaile klabeekin egindako elkarrizketak
- 277 artisauei eginiko inkesta baten garapena, zeinak profil pertsonal, profesional eta enpresa profilei buruzko informazio ezberdinak jasotzen dituen. Lanerako lerro hau, Artisauen Errepertorio batean irudikatu da -2. Eranskina-, non 277 fitxa informatibo eta bere ustiapen eta tratamendurako aplikazio informatiko bat jasotzen den -3. Eranskina: Erabiltzailearen gida-.
- Aktibitate, proiektzio, ibilbide profesional, etab. Bezalako kriterio ezberdinak kontutan hartuz, interes bereziko 21 artisauei elkarrizketak era sakon batean - Kasuen Analisia-. Honek liburuki bati eman dio lekua -1. Eranskina: Kasuen Analisia-.

Aipatzekoa da azkenik, eta giltzarri diren aspektu ezberdinekin, Laburpen Exekutibo bat osatu dela, non aurkezpen formatoan txosten honetako ezaugarri garrantzitsuenak jasotzen diren.

I. ZATIA:
ARTISAU AKTIBITATEAREN ENKOADRAKETA
OROKORRA

1.- ARTISAU SEKTOREA: OHARRAK ETA TESTUINGURAKETA

Artisautzaren azterketa aurrera eramaten denean, errepikatzen den eztabaida bat izaten da honen definizio eta mugaketari dagokiona; bai bere izaera eta ezaugarriei buruz dagokionean eta baita beste aktibitate ekonomikoekin dituen ezberdintasunei dagokionean.

Honi buruz esan, inolako eztabaida piztu nahian, ezta inoren aldeko posizioa ezarri nahian, aproposa ematen du Euskadiko Artisau Industrien azterketa aurrera eramaterakoan hartu den bideraketa eta enfokea justifikatzeko egin diren erreflexioez hornitzea.

1.1.- INDUSTRIA ETA ARTEAREN ARTEAN: BIZIBIDE BAT

Artisau aktibitateak baditu ezaugarriak ekoizpenerako aktibitate ekonomiko - artisau industria eta artearen kontzeptuaren artean ibilarazten dizkion ezaugarriak ditu. Kontutan hartu behar da artearen kontzeptu hori artisau aktibitatearen emaitzaren ikuspuntutik ematen dela, kontutan hartuz lorturiko produktuak indibidualizatuak direla eta ekoizpen mekanizatu edota seriekotik guztiz desberdinak diren ezaugarriak dituela.

Artisaua da, zentzu honetan, eskulanaren bidez eta eguneroko lanaren bitartez, erabilgarritasun handirik gabeko objektuak edo formarik gabeko materialak instrumentu erabilgarri edota funtzionalak eta izaera sinbolikokoetan eraldatzea posible egiten duena.

Ondorioz ballesta daiteke artisautza ekoizpen natural eta aktibitate industrialaren artean kokatzen dela, beste aktibitate ekonomikoen aurrean ezberdintasunak mantenduz, bereziki ekoizpen produktiboan artisauaren interbentzio pertsonalizatuaren ondorioz. Interbentzio zuzen hori, eskuzkoa kasu askotan eta makina eta lanabesetan oinarritua besteetan, aktibitate eta produktuari artisau izaera ematen dion oinarrizko elementua da.

Oinarrizko gertaera hontaz gain, deskribaturiko planteamenduan lanbide zentzuari erlazionaturiko aktibitatearen egunerokotasunari loturik, izaera osagarria duen bigarren elementu bat azaltzen da. Bigarren elementu hau da balio ekonomikoa ematen diona eta "aktibitate ekonomikoko sektorearen" katalogaziora hurbiltzen da, "lanbide" bezala. Artisauaren zuzenako interbentzioak ematen dio izaera hori produktuari eta hauek beste sortze eta ekoizpen modu batzuen berdina da. Izaera etnologiko, folkloriko edota herrikoiak eskusiboki motibaturiko sortze moduak, edota besterik gabe zerbaitetarako gustuan oinarriturik, hobbie edota afizio deitu daitekeelarik.

Bi elementuek -interbentzio indibidualizatua eta lanbidearen zentzu ekonomikoa, edota lanbidea- azterketa planteatu eta aurrera eraman den enfoke eta planteamedua markatzen du.

1.2.- ATZOKO AKTIBITATE BAT GIZARTE BERRI BATEAN: KULTURA HERRIKOIA

Artisautza, bereziki "tradizional" bezala deiturikoa, herrialdeko ondasun historiko eta kulturalaren beharrezko osagai bezala identifikatzen da maiz, eta kultura herrikoiarekin lotzen da zuzenean eta estuki.

Gertaera honek justifikazioa aurkitzen du ikuspegi osagarri bikoitz batetik:

- Alde batetik, tradizionalak diren lanbideen eta ekonomiako lehen sektoreko lanbideekiko erlaziotik, adibidez nekazaritza, abeltzantza eta arrantza. Aktibitate hauetan, giza lanaren oinarrizko formak osatu dituztelarik, artisauaren aportazioa oinarrizkoa izan da. Eta "artisau arrantza", "abeltzantza ustiapen artisaua", etab. bezalako esaerak adierazten dute lotura hau.
- Bestalde, eta kontrako zentzuan, gizarte ezberdinetan zabaltzen ari den globalizazio ekonomikoaren eta homogeneizazio kulturalaren -zibilizazioa- markoan aurkitzen ditu artisautzak bere erreferentzia puntuak. Prozesu homogeneizatzaile horri erantzuna emateko modua da, sustrai herrikoia eta komunitarioen bilaketan eta diferentziaturiko lekua bilatzen duten modelo kultural alternatiboek buruz goraka doan interesaren arloan.

Ikuspuntu honetatik tradizio herrikoekiko teilakatzeko sendoa da -eta honetatik artisau produktu edo zerbitzuaren indibidualitatea eta handizkako ekoizpenekiko bereizgarritasuna- artisau aktibitatea erakargarritasunez betetzen duena.

Bestalde, kultura herrikoia eta artisautzaren "identifikazio" hau ikuspegi estatiko batekin bat etortzen da. Ikuspegi hau gainditu nahi bada, gaia ez zen planteatuko artisautza kultura herrikoia "dela", baizik eta artisautzan kultura herrikoia "egiten" duela baizik.

Artisau aktibitatea ez da aktibitate ekonomiko tradizionalen eremura soilik mugatu behar, mendeetan zehar erabiliriko bide eta metodoen aplikazioan. Bisio nostalgiko honek ez du artisau aktibitateak osatzen duen ikusmoldea izkutatatu behar. Artisauak ez du soilik lanabes eta harraminta tradizionalak erabiliz sortzen, baizik eta - gainontzeko aktibitate ekonomikoetan gertatzen den bezala- ekoizpen modu eta jarraibideak aldatzera behartuta egon da. Honela, artisautzak ere ikusi du nola teknologia berriak sartuz joan diren, nola lanabesak eraldatzen joan diren eta nola produktuak berritzen joan diren erabileren, gustuen eta eguneraturiko balore sinbolikoen arabera.

Modu honetan, artisautza egungo gizartetik kultura herrikoia eraikitzen laguntzen duen aktibitatea da. Artisautza, aktibitate ekonomikoaren kondiziotik, etorkizuna eta iragana lotzen ditu, eta modernizazioa eta garapena behar du, bere egitura errealitate berrira moldatuz.

1.3.- SEKTOREKO ZEHARKAKOTASUNA ETA LURRALDEARI AINGURAKETA, NORTASUN ZEINU BEZALA

Burdinolatik egurrera, harrietatik fibra begetaletara, larrutik zeramikara, bitxigintzatik beirara..., artisautzak aniztasunean aurkitzen du bere aberastasunaren espresioa.

Balioa, errenta eta enplegua sortzeko aktibitate ekonomikoaren garrantzia ez da bere izate indibidual eta beste industrietan banatuarekin arlazonatzen; baizik eta besteekiko elkarlana eta ahaidetasun moduan; bai modu osagarri edo bere faktore diferentziagarriaren eskaintza paralelo moduan, edo baita ekoizpen katean balio gehigarria gehituaz.

Honela, artisau aktibitatea aktibitate horizontal moduan ulertu behar da, beste industria aktibitateekiko zeharkakoa. Lotura hori artisau ekoizpen unitatearen dimentsioari, ekoizpen edo zerbitzu motari -baukaerakoa edo tartekoa-, eta azken kasu horretan artisau produktua zuzendurik dagoen ustiapen industrialen edo zerbitzuen ekoizpen kateko ezaugarriari erlazonaturiko baldintza zehatzei heldurik dago.

Zehakakotasun sektorial hau ez da produktu edota industria irakurketa batetara mugatzen. Bere horizontaltasuna beste mota bateko aktibitateetara lotzen da. Hauen artean, eta lehen aipaturiko arte eta kultura bezalako beste aktibitate ekonomikoekiko erlazioez kanpo, lehen sektoreari eta turismoaren sektoreari erlazonaturiko hainbat aspektu nabarmentzea beharrezkoa da.

Lehen sektoreko aktibitateetarako -nekazaritza eta abeltzantza- artisau aktibitatea osagarri bat da, bai eskuz egiten delako edo sektorearen ekoizpenen errenta osagarriak sortzen direlako.

Turismoari buruz esan, sektore honek artisautza progresiboki erakargarritasunerako faktore bezala gehitzen doa; honela, marketing-aren arloan turismoaren merkatu "nitxo" bezala ezagutzen dena sortzen doa artisau aktibitate batzuentzat; bereziki kultura, landa eta turismo etnologikoari loturikoetan.

Azken aspektu honek, elementu ilustratibo bat sortzen du lurralde eta artisautza aktibitatearen artean. Honela, artisau tailer askok euren aktibitate edota produktua - artisautza herrikia batipat- lekuko tradizioarekin lotzen dute. Besteetan, artisau aktibitatean zaera generikoagoa dute eta ez dute horrenbesteko lotura geografikorik, baina euren ezaugarriengatik beste lurraldeko enpresa batzuen ekoizpen kateekin lotzen dira. Azkenik, zonaldea bisitatzeko duenarentzat erakargarritsaun gehigarri bat ordezkatzeko duten artisau aktibitateak azaltzen dira.

Guzti honengatik beharrezkoa egiten da artisautza perspektiba horizontal eta konplexu batetik begiratzea beharrezko egiten da, aldi berean tradizionalak eta eguneratuagoak eta berritzaileagoak diren sektoreekin erlazionaturik; eta lurraldeari eta bere erakargarritasunari loturik; zeinarekin sinergiak eta balioa sortzen dituen lurraldeko garapen ekonomiko baten ikuspegitik.

2.- ARTISAUTZAREN MARKO LEGALA

2.1.- ESTATUKO ENKOADRAKETA LEGALA

Artisautza juridikoki aktibitate ekonomikoko sektore bezala kategorizaten da 1978ko konstituzioan, zeinak bere 130.1 artikuluan zera adierazten duen "botere publikoek sektore ekonomiko guztien modernizazio eta garapena aintzat hartuko dute eta bereziki nekazaritza, abeltzantza, arrantza eta artisautza hartuko dute aintzat, espainiar guztien bizimaila parekatzeko helburuarekin"¹.

Termino juridikoetan, Ekainaren 18ko 1520/1982 errege-dekretuak, artisautza honela kontsideratzen du: "Interbentzio pertsonalak faktore nagusi bat osatzen duen prozesu baten bitartez eginiko ekoizpen aktibitate, ondasunen eraldaketa eta konponketa edo zerbitzuen prestazioa, horrela ekoizpen industrialarekin, serie handietan mekanizatua denarekin, egokitzen ez den azken emaitza indibidualizatua lortuaz"² Errege-Dekretu honek aktibitate artisauak, euren ezaugarriengatik, hiru multzotan banatzen ditu:

- a) Artisautza artistikoa
- b) Kontsumorako ondasunen artisautza ekoizlea eta industria eta nekazaritzaren osagarria.
- c) Zerbitzuen artisautza

Konstituzioaren 130.1 artikuluari jarraiki, eta nahiz eta ondoren artisautzaren gaiko eskumenak Autonomia Erkidegoei transferitu, Ekainaren 18ko 1520/1982 Errege-Dekretuan jasotako ezaugarri orokorrak ondoren garatu den Erkidego ezberdinen araudian mantendu dira. Ezaugarri horiek 3 funtsezko aspektuetan laburbiltzen dira:

¹ Artikulu honen interpretazioak, bere efikazia eta espiritu juridikoari buruzko eztabaida biziak sortzeko aukera eman du, baita "130.1 Plataforma" ren sorketa ahalbideratuz ere. Plataforma honen ustetan 130.1 artikulua bere hortan Zuzenbideko arau bat osatzen duela kontsideratzen du eta ondorioz, nahitaez bere edukin guztiekin erlazioa duten texto juridiko guztietan agertu behar da, artisautzan oraindik gertatu ez dena. Interpretazio honetatik abiatuz, plataforma horrek artisautza textu batekin hornitu nahi du. Textu hau, Lege maila eta izaera orokorrekoa, estatuan Antolamendu, Erregulazio eta Artisautzaren Sustapenari begira aipaturiko artikulua konstituzionalaren oinarrian, artisautza aktibitatea sektore ekonomiko berezi bezala garatzearen, eta Erkidego Autonomoetan emango den garapen normatiboari kalterik egin gabe, hauei transferituriko eskumenen harira.

- Ekoizpen, ondasunen eraldaketa eta konponketa eta zerbitzuen prestazioa.
- Nagusiki eskuzko edota pertsonala den prozesua
- Bukaerako emaitza indibidualizatua, industrialki serieetan ekoizgarria ez dena.

Espainiar Konstituzioaren 148. artikulua garapenak Autonomia Erkidegoei nekazaritza eta abeltzantza, mendi eta basoen aprobetxamendu, arrantza eta barne urak, itsaskien harrapaketa eta akuikultura eta artisautzan (148.1.14 artik.) eskumenak jasotzeari ateak irekitzen dizkie. Honela, Auzitegi Konstituzionalak lehen aipaturiko gaietarako, eskumen autonomikoen aldeko planteamendu hedagarri bat hartu du.

Era honetan, eta Autonomia Erkidego ezberdinek aldarrikatu dituzten Artisautzaren Antolamendu, Babes eta Sustapen Legeen bitartez (Ikusi Erkidego bakoitzeko erreferentzia normatiboen laburpen koadroa), eta dagozkien garapen arauekin batera, Europar Batasunak enpresa txiki eta ertainei buruz diktatzen duena betetzea lortu nahi da. Azken hauek, artisautzari dagokionean, merkatuen eta ekoizpenaren eskakizun berrietara moldatzea posibilitatzen duten laguntza egokien bitartez, artisau aktibitatea merkatuan mantentzera zuzendurik daude.

EAE-ren kasuan, eskumenak aldi berean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietara transferiturik daude, honela Lurralde Historikoetako administrazioak direlarik artisautzari buruz erregulazioa aurrera eraman dutenak.

Oinarrian, Autonomia Erkidegoak diktaturiko Legeen xedapen textuen egitura 4 ataletan egituratzen da eta ondorengo edukinak ditu:

- I. Atala
 - Legearen aplikazio objektu eta eremua
 - Artisautza kontzeptuaren definizioa
 - Artisau Lanbide eta Aktibitateen Errepertorioaren onespena

² Artisautzaren antolamendu eta erregulazioari buruzko ekainaren 18ko 1520/1982 Errege Dekretua, Lehenengo Artikulua..

- II. Atala (sektorearen antolamendua)
 - Artisauaren eta enpresa artisauaren izaeraren erregulazioa.
 - Aktibitate Artisauen Erregistroa
 - Erkidegoko Artisauaren Txartelaren eta Enpresa Artisauaren Gutunaren sorrera, Erkidegoaren aldetik izaera hori eduki ahal izateko eta aurreikusitako eta erregulaturiko laguntza eta onurak jaso ahal izateko.
 - Artisau Elkartearen Erregistroaren Erregulazioa
- III. Atala
 - Sektorerearen sustapenerako erregimenaren erregulazioa
 - Erkidegoko artisau izaerako bereizgarriaren erregulazioa
- IV. Atala
 - Artisautzaren Sustapenerako Kontseiluaren osaketa eta funtzioak, sektorearen organo ordezkari eta Erkidegoaren aholkularia gai honetan.

Autonomia Erkidego ezberdinetan eman diren artisau aktibitatearen erregulazioen ezberdintasun nagusiei buruz esan oinarrian, artisautzaren definizioari; artisau aktibitate mota ezberdinei; eta artisau enpresaren tamainari dagozkionak direla.

- **Artisau aktibitatearen definizioan sartzen diren aspektuak:** Autonomia Erkidego batzuk ondasunen sortzea artisautzaren definizioan sartzen dute, beste batzuk aktibitate artistiko bezala kontsideratzen den konponketa ondasun artistikoei buruz aritzen direnean bakarrik izango dela hala, eta beste kasu batzuetan elikagai produktuak definiziotik kanpo uzten diren bitartean. Arabaren kasuan, artisautzaren definizioan kontsumorako ondasunen eta industriaren eta nekazaritzaren osagarrien artisautza, baita zerbitzuen artisautza ere kanpoan uzten dira.

1. Koadroa

Autonomia Erkidegoetako Artisautza Aktibitatearen Definizioetan espreski sartzen diren aspektuak

	ANDALUCÍA	ARAGÓN	ASTURIAS	BALEARES	CANARIAS	CANTABRIA	CASTILLA LAMANCHA	CASTILLA Y LEÓN	CATALUÑA	COMUNIDAD VALENCIANA	EXTREMADURA	GALICIA	C. DE MADRID	MURCIA	NAVARRA	LA RIOJA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Ondasunak sortzea		X		X		X				X	X	X	X	X		X		X	
Ondaasun Artistikoak		X			X	X			X			X	X			X			X
Elikagai aktibitateak ez			X		X				X				X						X

- **Bereziki artisau bezala kontsideraturiko aktibitate motak:** Autonomia Erkidego gehienetan “sortze” artisautzaren terminoa eransten zaio artisautza artistikoari beste Erkidego batzuetan “tradizio” edo herrikoia izaera duen atal sartzen zaiolarik. Gainera, hiru Autonomia Erkidegoetan kontsumorako ondasunak ekoizten dituen artisautzak ezin dituela “elikagai” diren ondasunak sartu azpimarratzen da.

2. Koadroa

Autonomia Erkidegoen arautegian Artisau Aktibitate bezala bereziki kontsideratzen diren Aktibitate motak.

	ANDALUCÍA	ARAGÓN	ASTURIAS	BALEARES	CANARIAS	CANTABRIA	CASTILLA LAMANCHA	CASTILLA Y LEÓN	CATALUÑA	COMUNIDAD VALENCIANA	EXTREMADURA	GALICIA	C. DE MADRID	MURCIA	NAVARRA	LA RIOJA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Sortze artisautza		X	X	X	X	X		X	X	X	X	X				X	X	X	
Artisautza herrikoia		X	X	X		X						X				X	X	X	
Elikagai aktibitateak ez			X		X				X										

- **Artisau enpresaren tamaina:** enpresa, industria edo tailer artisauen definizioari buruz esan, artisau unitatea kontsideratzen da unitate ekonomikoa –artisau indibiduala ere sartuz- osatzen duen eta Artisau Lanbideen Errepertorioan azaltzen den aktibitate bat aurrera eramanez, “eskuzko” edota gutxienez indibidualizaturiko izaera duen aktibitatea garatzen duena, lanabes edo makinaria laguntzailearen erabileragatik izaera hori galtzen ez duelarik.

Autonomia Erkidego batzuetan, kontsiderazio hori izaera “egonkorra” duten langile “ez familiarren” konpurua 10etik gora ez denean soilik da balizkoa, ikasle aprendizak kontutan hartu gabe; beste batzuetan berriz langile kopuru limite bat ez dagoen bitartean. Hala ere, mugak jartzen dituzten ia Autonomia Erkidego guztietan badira hauek gainditzeko formulak, beti ere gainontzeko baldintzak betetzen dituzten bitartean eta dagokion Artisautzaren Kontseiluaren oniritziarekin kontzartzatzen bada. Bi kasuetan bakarrik (Kantabria eta Aragoi) ezin daiteke, inolaz ere, langile kopurua 10etik gora zabaldu.

3. Koadroa

Artisau Enpresa bezala Onartua izateko Enpresek behar duten Tamaina

	ANDALUCÍA	ARAGÓN	ASTURIAS	BALEARES	CANARIS	CANTABRIA	CASTILLA LAMANCHA	CASTILLA Y LEÓN	CATALUÑA	COMUNIDAD VALENCIANA	EXTREMADURA	GALICIA	C. DE NADRUD	MURCIA	NAVARRA	LA RIOJA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
10 Langile baino gutxiago	X	X	X		X	X		X	X			X			X	X		X	X
Handitzeko posibilitaterik gabe		X				X													

- Garaturiko aktibitateari buruzko beste baldintza relativo batzuk:** deskribaturiko baldintzei Autonomia Erkidego batzuetan ezarritako eskakizunak gehitu behar dira, adibidez, burutzen den aktibitatea Lanbide Artisauen Errepertorioan jasota egotea, edo burutzen den aktibitatea ezin dela noizbehinkakoa edo osagarria izan, edo titular edo tailerreko arduradunari artisau-maisuaren kondizioa izatea exijitzea. Azken kasu honetan, artisau-maisu kondizio hori Artisautza Batzordearen bitartez onartzen da eta artisau maisuaren gutun edo txartel baten bitartez ziurtatzen da

4. Koadroa

Autonomia Erkidegoen Araudian Artisanu Aktibitatearen Onarpenerako Beste Beharrezko Baldintza Batzuk

	ANDALUCÍA	ARAGÓN	ASTURIAS	BALEARES	CANARIS	CANTABRIA	CASTILLA LAMANCHA	CASTILLA Y LEÓN	CATALUÑA	COMUNIDAD VALENCIANA	EXTREMADURA	GALICIA	C. DE MADRID	MURCIA	NAVARRA	LA RIOJA	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Lanbide Errepertorioa			X		X	X	X		X	X		X	X		X				X
Ez osagarria/noizbehinkakoa.			X				X	X	X	X	X		X	X		X			
Artisanu- Maisua	X			X	X	X	X		X	X		X	X			X			
																			3.1.1

5. Koadroa
Autonomia Erkidegoen Araudia

Autonomia Erkidegoak	LEGEA	DEKRETUA	Artisau Kalifikazioa	Artisautza Batzordea	Artisau Maisuaren Gutuna	Artisau Aktibitateen Erregistroa	Artisau Aktibitateen Errepertorioa
Andalucía		1520/82, de 18/06		D 175/89, de 18/7			O 22/07/68
Aragón	1/89, de 24/02		O 06/07/90	D 169/97, de 7/10		O 09/07/90	O 21/04/99
Asturias		88/94, de 05/12					
Balears	4/85, de 03/05		O 13/03/86	D 68/85, de 01/08	O 12/12/85 O 22/01/88	O 13/03/86	O 09/12/85
Canarias		599/85, de 20/12 150/94, de 21/07 ³			O 21/05/99		O 04/10/99
Cantabria	7/98, de 05/96						
Castilla-La Mancha		82/86, de 29/07	O 28/05/87	O 11/09/86	O22/03/87 O 14/04/97		O 14/04/97 O 23/05/00
Castilla y León		42/89, de 30/03		O 10/09/90		O 24/11/89	
Cataluña		D 252/00, de 24/07		O 25/07/00			
C. Valenciana	1/84, de 18/03			D 83/84, de 30/07			O 04/06/85
Extremadura	3/94, de 26/05		O 18/12/94	O 05/02/93	D 149/94 de 27/12		O 04/02/93
Galicia	1/92, de 11/03			D 94/92, de 11/04		O 09/07/93 D 145/93, de 24/06	O 12/07/93 O 05/05/97
Madrid	21/98, de 30/11					O 427/96 de 08/97	Legeari atxikirik
Murcia	11/88, de 30/11	D 20/98, 23/04 ⁴			O 14/01/99	O 01/02/99	O 15/12/98
Navarra		188/88, de 17/06					Dekretuari atxikirik
Euskadi							
Araba			OF 445/99 02/08	DF 65/200		OF 95/2002	OF 95/2002
Gipuzkoa		75/96, de 10/11			D 80/97 de 25/11	D 79/97 de 25/11	OF 213/97
Bizkaia						D 37/88 de 30/03 O 894/90 de 04/05	D 37/88-ri atxikirik
Rioja (La)	2/94, de 24/05			D 52/98, de 28/08			

³ Cabildos-era aldaketa

⁴ Legearen zabaltzea

2.2.- ERREGULAZIOA EAE-n: ERRETRATU HETEROGENEO BAT

Autonomia Erkidegoko Institutuzio Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Erlazioen azaroko 27/83 zenbakidun Legeak, bere 7. artikuluan, 12 apartaduan, artisautzaren gaietan eskumen eskusiboa ematen die Lurralde Historikoei. Honela, eskumenak hiru lurraldeetako Foru Aldundietako sail desberdinei egokitu zitzaizkien.

Hiru Lurralde Historikoetako Aldundiek, sektorea mugatzeko eta gai honetan jokabide eraginkor batentzat oinarriak ezartzeko, Dekretu ezberdinak garatu eta aldarrikatu zituzten, artisau enpresen antolamendu eta garapenerako neurriak instrumentatzeko beharrezko marko legala ezartzeko, eta honela errentagarritasun, kudeaketa eta produktibitate baldintzak hobetu.

Praktikan, jarraiturik ibilbideak eta hiru lurraldeetan lorturiko egoera positiboa ezberdina da; eta lehen estatuko markoan azaldu diren egoeren heterogeneitatea ere berriro ematen da eta gaitera kasu batzuetan gogortu egiten da heterogeneitate hori.

2.2.1.- Arabako Lurralde Historikoa

Artisautza bere alde kulturean erregulatzeko asmotan, Foru Administrazioak uztailaren 12ko 445/99 Foru Agindua osatu zuen. Bertan artisautza kontzeptu, mota artisau eta artisau enpresak definitu ziren. Ondoren, 65/2000 Foru Dekretuaren bidez, Artisautza Kontseilua sortu zen; ondoren eta bukatzeko 95/2002 Foru Aginduaren bitartez artisau, enpresa artisau, Artisautzaren Erregistro Orokorra eta Arabako Artisautza Errepertorioa erregulatu zen.

Artisautza Kontzeptua:

Artisautza, alderdi kulturean, indibidualizaturiko eta ez seriaturiko ondasun edo produktuak lortzera zuzenduriko aktibitatea bezala definitzen du, eta elaborazio prozesu honetan eskulana makinek egiten duten lanari gailentzen zaiolarik, berau (makinen lana) prestaketa edo bigarren mailako faseetan erabil ahal delarik, beti ere azken emaitzan lehentasunezko eraginik izaten ez badu. Kultura Sailak artisautza zorrozki manifestazio kultural bezala definitzen du, kontsumorako ondasun eta industriaren eta nekazaritzaren osagarri den artisautza eta zerbitzuen artisautza espreski kanpoan uzten delarik.

Artisautza Motak:

Arabako Foru Aldundiak bi artisautza mota bereizten ditu:

- *Artisautza tradizionala:* artisautza tradizional bezala ulertzen da bere berezitasuna ezagutzen diren forma klasikoen erreproduzioan duena, helburu horretarako material identikoen erabilpen eta aplikazioarekin eta historikoki erabiliriko prozedimenduekin.
- *Artisautza artistikoa edo sortzailea:* artisautza tradizionalan erabiltzen diren prozedurak edo ekoizpen prozesuak errespetatzen dituen artisautzak, eta material berri, antzeko edo betikoak erabiliz estetikoki ohikoak diren emaitza ezberdinak lortzen dituenak, artisautza artistiko edo sortzaile bezala kontsidera daiteke.

Artisau enpresa edo artisauen onarpenerako baldintzak:

Enpresa artisau bezala onartuko da artisau produktu edo ondasunen ekoizlea, zeinak Agindu Foralak bereizten dituen bi artisautza mota ezberdinen baldintzak betetzen baditu eta bere elaborazioa artisautzaren kontzeptuarekin bat etortzen bada, gainera Arabako Lurralde Historikoan helbideratutako unitate ekonomikoa izan behar du. Bestalde, *artisau* kontsideratuko dira Arabako Lurralde Historikoan errolatutako pertsona fisikoak eta euren ekoizpen aktibitatearen emaitza produktu artisaua denean eta artisauaren izaera erresoluzio administratibo baten bitartez onartzen bazaio. Artisauaren izaera izateko eskaera egiterako orduan, eskaera hori Kultura Sailera zuzendu beharko da eta aktibitatea ezagutzen denaren dokumentazioa eskatuko da, aktibitatea sektorearen aldetik errekonozitua ez dagoen kasuetan. Gainera, enpresa artisauaren ekoizpen prozesuan parte hartzen duten pertsonak artisau izaera izatea eskatuko da. Bestalde, eta erregistratuak daudenean, Kulturako Foru Diputatuak artisau eta enpresa artisauari euren izaera baieztatzen duen egiaztagiria emango die.

Artisautza Kontseilua:

- Artisautzaren Kontseilua Arabako Foru Aldundiak artisautzaren alderdi kulturalaren garapen eta sustapenerako eta kontsulta-organo eta aholkulari bezala sortzen da, eta Kultura Sailaren jardura eremuari esleitzen zaio. Bestalde, organo honen osakerak Kulturako Zuzendaritza, Ogasuneko Zuzendaritza, Arabako Industria eta Merkataritza Ganbarako Ekonomia Zuzendaritza, Arte eta Lanbideen Estola eta Aplikaturiko Arteen Eskolako ordezkariak, Etnografiaren alorrean aditua den prestigiodun ordezkari bat eta artisau aktibitatean aditua den ordezkari batek osatuko dute kontseilua
- Kontseilu horrek funtzio ezberdinak izango ditu, lehen esan bezala, eta ekainaren 12ko 445/99 Foru Aginduko 6. artikuluan garaturikoei ondokoak gehituko zaizkio:
 - Arabako Artisauen Erregistroaren erregulaziorako kriterioak finkatu.
 - Artisautza aktibitateen sustapen eta promoziorako ekimen ezberdinak proposatu.
 - Kultura Sailari aholkatu artisautza sektoreari eragin diezaiokeen edozein gaietan eta honek hala eskatzen badu.
 - Artisau izaeraren jabetza lortzeko kriterioak prestatu, baita izaera honen jabetza ukatzeko kriterioak ere.
 - Artisau izaera bereganatu dezaketen aktibitate eta lanbideen errepertorioa osatu.

Artisautzaren Erregistro Orokorra:

Bertan artisau izaera duten eta mantentzen duten, pertsona fisiko guztiak inskribatu daitezke, beste baldintza bat da Artisautzaren Erregistro Orokorrean inskripzioa eskatzea. Erregistro honen partaide ere izan ahalko dira dagozkien erregistroetan inskribatutako Artisautza Elkarte eta Federakuntzak, eta Federakuntzen kasuan helbidea Araban eta aktibitatea Lurralde honetan aurrera eramaten duten batzuen eta besteen Elkarteengatik.

Erregistro honek izaera publikoa izango du eta sektorearenganako Kultura Sailaren laguntzak bertan inskribatzearen baldintzapean daude.

Artisau Aktibitateen Errepertorioa:

Oinarrizko sailkapen batean lagunduz zera adierazten da, aldizka Kultura Sailak momentu bakoitzeko gizarte errealitatera moldatu beharko duela ezarritako sailkapena, honela Atal horretan ezarritako aktibitateei beste batzuk gehitu ahal izango zaizkie.

2.2.2.- Bizkaiako Lurralde Historikoa

Eusko Jaurlaritzaz-Bizkaiako Aldundia Eskumenen Komisio Mixtoak, 1985eko otsailaren 27ko akordioaren bitartez, eskumen horri esleituriko zerbitzu, pertsonal, ondasun, eskubide eta betebeharrak zehazteari ekin zion, horretarako eskumenen eskualdatzea eman delarik Bizkaiako Foru Aldundira martxoaren 5eko 93/85 Eusko Jaurlaritzako Dekretuaren eta apirilaren 18ko 42/85 Foru Dekretuaren bitartez.

Artisauen erregistroan inskripzioa erregulatzen duen martxoaren 30eko 37/88 Foru Dekretua garatu zuen Bizkaiako Foru Aldundiak. Bizkaiako Aldundiak, eskumenen ariketan eta Araban egin ez zen moduan, sektorearen egoera ezagutzeko eta honen beharrak ikusteko eta ondorengo jardueren eta neurrien enfokea ezagutzeko premisa moduan, Bizkaiako artisauen erregistroaren osaketa gomendagarria kontsideratu zuen. Ondoren Bizkaiako Foru Aldundiak artisautzaren sektorearen arautegia osatu zuen maiatzaren 4ko 894/90 Foru Aginduaren bitartez.

Aldizka, Aldundiak Sektorearen Laguntzarako Planak instrumentatzen ditu zeinak, arabako planteamendu orokorraren kontrajarreran, sektoreko enpresen garapena sustatu eta lehiakortasuna finkatzea bilatzen duen diseinua duen, beste sektore ekonomiko batzuetan erabiltzen diren laguntzarako planteamenduen antzera.

Artisautzaren kontzeptua:

2. artikuluan definiturik, Bizkaiako Aldundiak esku hartze indibiduala faktore nagusia izaten den prozedurak jarraituz, eta honen emaitza indibidualizaturiko produktua denean eta ez denean serie handietan edota era mekanizatuan industrialki ekoizgarria, elaboraturiko kontsumorako eta elikagaiak ez diren, ondasun, ondasun artistiko eta zerbitzuen prestazioen ekoizpen, eraldaketa eta konponketa aktibitate guztiak artisauren aktibitateak bezala kontsideratzen ditu.

Artisau enpresa edo artisauen onarpenerako baldintzak:

- Bizkaian helbideratua dauden unitate ekonomiko guztiak, duten izaera juridikoa dutela ere, edo Bizkaiako udalerriren batean errolatuta egotea pertsona indibidualen kasuan.
- Artisauren aktibitate bat aurrera eraman, horrela ulertuz lehen aipaturiko artisauren aktibitatearen kontzeptuari egokitzen direnak.
- Izaera iraunkorra duten eta familiakoak ez diren langile kopurua ezin izango da 10 baino handiagoa izan, aprendiz ikasleen kasuak salbu.
- Langile kopuru hau gaintzen duten enpresek ere eduki ahal izango dute artisauren kontsiderazioa, Sustapen eta Garapen Ekonomikorako Sailari eskakizun bat egiten bazaio eta honek kasu bakoitzean erabakiko du enpresak garatzen dituen aktibitateen artisauren izaera.

- Artisau aktibitatea noizbehinkakoa edo osagarria den era batean ez egitea.
- Lizentzia Fiskalean alta emanda egotea (martxoaren 30eko 37/88 Foru Dekretuak garatzen duen maiatzaren 4ko 894/90 Foru Agindua).

Artisauen Erregistroa:

Bizkaiako Foru Aldundiaren Sustapen eta Garapen Ekonomikorako Sailari esleiturik, Bizkaian kokaturik dauden eta artisau enpresa izateko baldintza guztiak betetzen dituzten enpresa guztiak inskribatu ahal izango dira. Erregistroak izaera publikoa izango du eta borondatezkoa izango da bertan izena ematea. Inskripzio eskaeren tramitazio eta ebazpena Sustapen eta Garapen Ekonomikoaren Sailari dagokio. Artisauen erregistroarako inskripzioaren indargabetzea ondorengo arrazoiengatik eman daiteke:

- Banakako enpresariaren hileta edota uko egiteagatik.
- Martxoaren 30eko 37/88 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.
- Enpresaren pertsonalitate juridikoaren iraungipenagatik.

2.2.3.- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Urriaren 3ko 103/1995 Foru Dekretua, zeinak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta eskumenen banaketa ezartzen duen, bere funtzio bat bezala artisau izaerako aktibitate ekonomiko eta mikro-enpresa sarearen lehiakortasunaren hobekuntzarako jardueren burutzea bere funtzioetako bat bezala aurrikusten du.

Artisautza aktibitatearekiko erlazioa duen garaturiko legedia bereziki irailaren 10eko 75/1996 Foru Dekretuan oinarritzen da. Honek, artisautzaren definizioa, bere motak, enpresaren kontzeptua, maisuaren kontzeptua eta Gipuzkoako Artisautza Kontseiluaren sorketa tratatzen ditu. 213/97 Foru Aginduak, Artisau Aktibitateen Errepertorioa garatu zuen eta azaroaren 25eko 79/97 Foru Dekretuak Artisautza Herrikoia eta Tradizionalaren Erregistro Orokorra sortzen du, zeinak kalifikazio hauetatik - tradizional eta herrikoia- praktikan 75/96 Foru Dekretuan ezarritako artisautzaren kontzeptu edo definizioa zehazten duen.

Araba eta Bizkaiako Aldundien kasuetan bezala, Gipuzkoako Aldundiak artero Laguntza Planak ezartzen ditu sektorearen enpresentzako. Laguntza hauek Bizkaiaren deskribatu diren planteamenduei gehiago hurbiltzen zaizkie; baina izpiritu eta planteamendu praktikoa sektorearen aldeko laguntza orokor bategatik dator markatua.

Artisautza Kontzeptua:

produktu industrialaren ezberdina den eta faktura indibidualizatua duen azken emaitza ateratzen denean ekoizpen prozesuaren guztizkoa gainbegiratzuz eta kontrolatuz, interbentzio pertsonala faktore garrantzitsuagoa den prozesuaren bitartez, ondasunen sormen, ekoizpen, eraldaketa, konponketa edo zaharberritzea edo zerbitzuen prestazioa aurrera eramaten duten edozein aktibitate, artisautzako aktibitate bezala kontsideratzen da. Tresneria eta makinaria osagarria erabiltzea guztiz bateragarria da artisautzaren kontzeptuarekin.

Artisautza Aktibitateen Sailkapena:

Lau artisautza talde bereizten dira, nahiz eta ez definiturik gabe egon:

- Sortze artisautza edo artisautza artistikoa
- Kontsumorako ondasunen ekoizle den artisautza.
- Zerbitzuen artisautza.
- Gipuzkoako artisautza tradizional eta herrikoia.

Artisau enpresa edo artisauen onarpenerako baldintzak:

Artisau aktibitatea (lehen definituriko moduan) garatzen duten tailer, enpresa eta unitate ekonomikoak, artisau indibiduala barne, eta ondorengo baldintzak betetzen dituztelarik:

- Aktibitateak ohizkotasunez garatua izan behar da.
- Izaera iraunkorra duten langileen kopurua ezin da 10 baino handiago izan, aprendiz ikasleak, ezkontide eta lerro zuzeneko, odoleko, adoptaturiko edota afinitateagatiko ahaideak salbu.
- Aktibitateak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Artisau Aktibitateen Errepertorioan azaldu behar du.
- Aktibitate Ekonomikoen Zergan alta emanda egotea dagokion aktibitatearen barnean.

Artisau Enpresaren kontsiderazioa eduki ahal izango dute, nahiz eta 10 langiletik gora izan, gainontzeko baldintzak betetzen badituzte. Kasu hauetan Ekonomia eta Turismo Saileko Diputatuak, Gipuzkoako Artisautzaren Kontseilua entzun ostean, erabakiko du enpresaren artisau izaerari buruz.

Gipuzkoako Artisautzaren Kontseilua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak Kontseilu hau sortu zuen Aldundiaren eta artisautza sektore gipuzkoarraren artean komunikaziorako bide bat ezartzeko asmotan. Gipuzkoako Artisautzaren Kontseiluak kontsultarako organo ez lotesle baten kontsiderazioa izango du eta Gipuzkoako Foru Aldundiari artisautza gaiari buruz informatu eta aholkatuko dio, eta bereziki ondorengo gaiari buruz:

- Artisautza gaietan xedapen orokorreko proiektuak.
- Artisau Aktibitateen Errepertorioa.
- Artisau Sektorean garatu beharreko jarduerak.
- Artisau identifikaziorako bereizgarri eta ziurtagiriaren xedatzea.
- Kontseilua ondorengoek osatuko dute: Ekonomia eta Turismo Saileko Diputatuak, edo delegatzen duen pertsona, Ekonomia eta Turismo Saileko Zuzendari Orokorra, Sustapen eta Garapen Ekonomikorako eta Turismo Zerbitzuaren Burua, Euskal Udalerrien Elkarte (EUEDEL) bi ordezkari, Merkataritza Ganberako ordezkari bat, Artisau Profesionalen Elkarte eta Taldeetako ordezkari bat, aurretik ezarritako artisau sailkapen talde bakoitzeko, Artisau feria-manifestazioen sustapenerako elkarteetako bi ordezkari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Saileko Diputatuak izendatutako prestigidun bi pertsona eta Ekonomia eta Turismo Saileko Diputatuak izendaturiko aholkulari bat.

Gipuzkoako Artisautza Tradizional eta Herrikoiaeren Erregistro Orokorra:

Honen helburua bertan inskribaturik dauden pertsona, tailer eta enpresei Artisautza Tradizional eta Herrikoieko profesionala izatearen kondizioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez errekonozitzea da.

Erregistroan inskribatzea ez da nahitaezkoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Artisau Aktibitateen Errepertorioan agertzen diren aktibitateak garatzen dituzten pertsona, tailer eta enpresak bakarrik eman ahal izango dute izena Erregistroan. Gipuzkoako Artisautza Tradizional eta Herrikoiaeren Erregistroan izena ematea, nahitaezko baldintza izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak Artisautza Tradizional eta Herrikoiaeren babes eta sustapenari buruz ezarritako onurak lortzeko.

Gipuzkoako Artisau Aktibitateen Errepertorioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Artisau Aktibitateen Errepertorioa garatu zuen sektorearen erregulazio eta mugatzean aurrera egiteko intentzioarekin. Errepertorio hori Foru Aginduaren 1. Eranskinean azaltzen da eta hainbat aktibitate azaltzen dira bertan, Elikagai eta Edari produktuen industriari erlazionaturiko aktibitateak sartzen direlarik ere.

2.2.4.- Dibertsitatea egiaztatuz

Lehenago aipatu den moduan, aurkezturiko erretratuak lorturiko egoera eta enkokearen terminoetan erregulazio dibertsitate garrantzitsu bat dagoela egiaztatu da. Ikusiko da nola Araban sektorea Kultura eremu edo sailean kokaturik dagoela; Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan sustapen ekonomikoari loturiko gaietatik kudeatzen delarik eskumena. Ezaugarri diferentzial hau, zeina ondoren enfoke eta planteamendu orokorrak ezartzen dituen, hainbat aspektu bereizgarrietan zehazten da.

Enfoke orokorrean buruz esan Bizkaiako Aldundiak ezarritako lehenengo ibilbidea (1988), artisau sektorearen dimentsio ekonomikoan enfasia jarriz zuzendu zela esan behar da; Arabako kasuan planteamenduak eremu kulturalean ezarri zirelarik (1999); eta Gipuzkoan (1996), nahiz eta ikuspegi ekonomikoago bat eman, bi errealitateen arteko ibilbide bat jorratu da.

Lorturiko egoera positiboan buruz esan ezberdintasunak asko eta garrantzitsuak direla.

¹² 113 artisauentzako kolektiboarentzat 260.000 €-tako aurrekontu diru- dotazioa: batez bestekoa 2.300 € artisau bakoitzeko. %20 batean handitzea posible dena.

¹³ 33 artisauentzako 30.050 €-tako aurrekontu diru- dotazioa: batez besteko 910 € artisau bakoitzeko.

¹⁴ 115 artisauentzako 210.250 €-tako aurrekontu diru- dotazioa: batez besteko 1.828 € artisau bakoitzeko.

- Asoziazio zatiketa dago, zeinak masa kritiko baten gabezia eta minifundismo erregulatuarean ondorioa duen, eta ez duen egoera integratzaile eta sektorearen errefortzu baten alde egiten.
- Sektore heldua: sektorearen heren batek 50 urtetik gora du.
- Jarrera oso indibidualista, beraiengan, euren esperientzian eta arazoetan zentratutako bisioa; zeinak euren merkatuarekiko sentsibilitatea eta enpresa ikuspuntu batetik euren aktibitatea baldintzaten duena.
- Mikroenpresen berezko mugak: Ekoizpen unitate oso txikiak, enpresa antolaketako ekoizpen formalizazio eskasarekin.
- Merkaturatze oso oinarrikoa, zeinak sozialki “ikustezin” egiten duen artisau produktua.
- Kalitate maila oso ezberdinak kontzeptu edota aterki berdinen azpian.
- Euren beharretara egokituriko hezkuntza eskaintza eskasa; eta bi errealitateen arteko kontaktu falta.

MEHATXUAK

- Produktu industrialen eta garapen bidean dauden herrialdeetatik inportaturiko oso kostu baxuko eta itxurazko akabera duten produktuen konpetentzia.
- Industria tradizionala “artisau tailerretarako” birmoldaketa, eta eskulan aktibitateen intrusismo profesionala edota kalitate gutxiko produktuak, artisau produktuen irudia kutsatzen dutelarik.
- Artisau aktibitatearen balore berezien gainbalorazioa, honek “aktibo” hori eragozpen bat izatea sortaraz dezake enpresa terminoetan sektorearen dinamizazio eta eboluzioan.
- Azoken hondatze progresiboa merkaturatze bide bezala.
- Artisau munduarekin erlazionaturiko ondare etnografikoaren galera bizkortua.
- Artisau sektorea marginalizazio progresibo eta behin betikoa indargabetzean kokatzen duen belaunaldi errelebo urria.
- “Erreserba Indiarraren egoera”: Merkatuarekiko egokitzapenaren, euren gustu eta eskaera konpetitiboen terminoetan erantzun konpetitibo eskasa, zeinak sektorea “desagertze zorian” utz dezakeen.

INDARRAK

- Jarrera “erresistentedun” kolektiboa, kontrako merkatu eta egoera soziolaboraletan bizitzea ohiturik dagoena, lanbidearenganako maitasunetik eta faktore diferentziagarriaren uste osoa aktibo bezala izanik.
- Artisau enpresa bikainen kolektibo garrantzitsua, aktibitate eta estilo ezberdinetatik transferigarria den esperientzia aurkezten dutelarik: Artisautzaren “cum laude”¹⁵-ak eta euren erakustaldi efektua.
- Aktibitatea gogotsu aurrera eramaten duten organizazio txikietan ohikoak diren flexibilitate eta egokitzapenerako ahalmen baloreak.
- Optimizazio ekonomikorako potentziala duen kapital etnografiko oso garrantzitsua.
- Merkatal balioarekin, “Euskal” –aren nabarmentasuna label bereizgarri bezala.
- Kontutan hartzeko denborazko ikuspuntu batetatik, sektorearen garapen sektorial/Instituzional baten ibilerak, egindako akats eta asmatzeetatik ikasketarako erreflexio kritiko bat sortarazten du.

¹⁵ Blanka Gómez de Segurak erabilitako adierazpena aipaturiko erakustaldi efektua ilustratzeko.

AUKERAK

- Artisau produktuak eskaintzen dituen balorenganako gizarte (eta merkatuko) eszenatoki progresiboki sentikorragoa.
- Kultura eta Turismo aktibitateekin sinergiak; geroz eta balio ekonomiko handiagoko sektoreak.
- Artisautzaren kontzeptzio eguneratuago bat edukiarren, arte eta diseinuaren munduarekin elkarlana.
- Enpresa kudeaketaren profesionalitateari loturiko hobekuntza tarte zabala.
- Merkaturatzeko kanal bai zuzen eta zeharkakoen –azken hauek ia marjinalak- optimizazioari loturiko hobekuntza tarte zabala.
- Bai indibidualki –enpresa- eta bai kolektiboki –sektorea-, informazio eta komunikazio teknologia berriek eskaintzen duten alternatiben aplebetxamendua.

6.- SEKTOREAREN ETORKIZUNA BIDERATZEKO GILTZARRI DIREN ELEMENTUAK

Sektorearen diganostikoa aurkezturik eta jarduera proposamenaren garapena baino lehen, giltzarri diren hainbat elementu kokatu nahi dira sektorearen etorkizuna orientatzeko

6.1.- ARTISAUTZA GAUR EGUN: JOKORAKO- EREMU BERRI BATEN AURREAN

Gizarteak jasan dituen eraldaketak, merkatu balore eta gustuetan; gizarte produkzio eratan eta antolakuntza sozioekonomikoan, artisau aktibitateari jomuga berriak irekitzen dizkion jokorako- zelai berri bat marrazten ari dira:

- Egungo industri-ondoko gizartean, zeinetan zerbitzuen eskaintzak, informazioak eta ezagutzak sistemaren bihotza beregain hartu duten objektuen produkzioak leku hori eman ostean; produktua ez da gehiago ondasun material bat, beregain ditu gero eta era explizito bateagoan propioak zaizkion balore ukiezinak. Honela, artisau produktua, produktu erakargarria da artisauaren zuzeneko lanak –eskuak- ematen dion balio etikoagatik, produktu industrial eta despertsonalizatuaren aurrean. Eta garapen jasangarrian, bidezko merkataritza edota enpresen gizarte erresposabilitatearen alde apostu egiten duen gizartearen zati baten aurrean, artisau produktuak beregain dituen baloreak, etorkizuneko baloreak dira.
- Bestalde, garai industrialak deskribatzen zuten eskala ekonomien bilaketen eta zentralizazio produktiboaren aurrean, egungo aktibitate ekonomiaren tertziarizazioak eta berarekin ezagutza eta informazioaren gizarte honen garapenak, ekoizpen unitate txikiaren balorizazioa ekarri du, sarean dagoen enpresaren ideiak, bere esperientziatik ikasten duen adimendun antolakuntzak, tailer txikien mundutik hain gertu.

- Bukatzeko, eta termino intelektualetan, jada ez daude egia absolutuak. Gizarte postmodernoan mundua aurkarien kudeaketaren klabe batean ulertzen da: aniztasuna, errealitate desberdinen arteko aldi bereko elkarbizitza –zaharra eta berria, herrikoia eta elitista, teknologia eta tradizioa,...-. Euren artean aberastu eta osatzen diren errealitate kontraesankorrak errealitate konplexu berri bat eratzen dutelarik. Gizarte horretan, bi munduen arteko artisau produktuak –zaharra eta berria, herrikoia eta elitista, teknologia eta tradizioa,...- zentralitatea berreskuratzen du.

Aurkezten den aukera eta erronka beraz, eguneroko rutina baztertzea da, jasotako esperientzia eta ezagutza balioan jartzea behar berriei erantzuteko, gauza berriak eskaintzen edo era ezberdin batean egiten edota aurkezten, konbinazioak sortzen, abantailak sortzen,..., hau da, **eboluzionatu eta egokitu, ulertuaz artisaua ezin dela berrikuntzaren aurrean setatia izan.**

6.2.- ENPRESA-MERKATUA BINOMIOA ESKAKIZUN BEZALA

Artisau aktibitatea, karakterizatzen duen bereizgarri emozionalengatik, enpresa logikatik aldentzen joan da tradizionalki, beharrezko eginkizun bezala ulertuaz, balio ekonomiko sortzailea den aktibitate bezala baino. Tradizionalki lanbidean eta teknika menperatzean –egiten duenean- zentratuak, artisauak kezken bigarren plano batean utzi du egiten duena eskatzen den ala ez jakitea; ez da eztabaidatu egiten denari nola balioa eman eta nola aurkeztu era erakargarri batean; edo nola lortu produktu horiek bezero potentzialetara iritsi araztea, ohiko salmenta kanaletatik at (eskaerak, azokak, salmenta zuzena tailerrean.).

Aktibitatea ulertzeko modu hau oso zaila da egungo merkatuaren eskakizunekin bateragarria egiten; eta ez da gehiegizkoa esatea artisaua etorkizunean enpresa izango dela edota ez dela izango.

Merkatuak ekoiztea eskatzen du kontsumitzaileen behar efektiboak – izan funtzionalak, izan sinbolikoak- aurre egiteko, bezero berezi batzuen segmentuan kontzentratu, eurengan irudi eta kalitate koherentea proiektatu eta eurengana heltzeko merkaturatze kanalak egokitu. Ekoizpen prozesuen kudeaketa efiziente batetatik ekoiztea eskatzen du, prezio eta kostuen analisi eta ezagutzatik; eta aktibitatearen kontrol administratibo eraginkor bat; jasangarritasuna bermatuko duten soberakinak sortuz. Beste hitz batzuetan, enpresa portaera bat behar du, kasu gehienetan mikroenpresen ezaugarri eta kutsuarekin, baina azken finean enpresak.

Egoera batetik besterako transizioa ez da lan erraza ezta berehalakoa ere. Oztupo psikologikoak dira zailenak eta ez teknikoak edo kudeaketakoak. Onartu behar da artisauren aktibitateak enpresa ikuspuntu bat hartzeak ez duela esan nahi berarekin galbideratuko duenik, ezta bere dimentsio artistikoarekin aurrez aurre dagoenik, baizik eta biziraupen eta jasangarritasunerako bidea dela. Enpresa profesionalitate eta marketingaren bidea, jadanik beste hainbat mailatako ekoizpen artistikoa duten sektoreetan eman dena (margolaritza, eskultura, ikusentzunezkoak, literatura,...).

6.3.- ARTISAUTZA ETA LURRALDEA: BALIOZTATU BEHARREKO BIKOTEA

Aktibitate turistiko, kultural eta ludikoek geure bizitzeko moduan garrantzia hartzen joan dira, balio ekonomikoa sortzen duten elementu aktiboak bihurtu arte. Honela, artisauren-lurralde binomioak lehenengoaren erakargarritasuna balioztatzen du – lurraldea- produktu turistiko moduan eta bigarrenarentzat merkatal aukera bat sortzen du –artisauren-.

“Elkarte” honen optimizazioa ez da batere erraza. Lurraldearen erakargarritasunaren hobekuntzak kontsumorako ondasun bezala, ezereztatzeko arriskua du. Hain zuzen ere, erakargarritasuna daraman balio identitarioaren transmisio ahalmenarekin loturik ulertu behar da, bere hondatzea sahiestuz. Beraz, kontu handiarekin planteatu behar da, kalitatea eskakizun bezala, konponbide generalizatuetatik at, dimentsionamendu zuhurrengan apostu eginez, zehaztasuna planteamendu guztietan present duten garapen zorrotzengana apostu eginez... artisautzaren erakargarritasunaren berezko izaerarekin, eta bere izaera ezberdinarekin, koherenteak ez diren praktika eta jarreretan erori gabe; eta bukaeran nahi ez diren bigarren mailako efektuak sortaraz dezaketelarik.

6.4.- ARTISAU ENPRESA ETA PRESTAKUNTZA ESKAINTZA: ZUBIAK ERAIKIZ

Artearen eta hezkuntza teknikoaren artean kokaturik, artisautzak ez du historikoki egoera erraz bat izan. Disziplina anitzen eta planteamendu irekien gabeziak ez du artea, artisautza eta diseinuaren arteko elkarbizitzan lagundu; egoera honek, gerora, artisautza heziketa eskaintza urri eta desdoitu batean izan du ondorioa.

Beraien aldetik, ikasketaren kulturaren oinarrituriko –teorikoki- artisau tailer tradizionalak, heziketa prozesuen aurrean nahiko setati agertu dira, lehen aipaturiko desdoitze erlatibo baten koadroa margotzen bukatuaz.

Egoera honi buelta ematea, zubiak eraikitzea eta hezkuntza esparrua eta artisautza sektorearen arteko egokitzapena bultzatzea, etorkizuneko behar argi bat bezala azaltzen da. Beharra ez bakarrik sektorearen kualifikazioari loturik, baizik eta garrantzitsuago den belaunaldien berritzeari, hauen gaztetzeari eta egungo eskakizun konpetitiboekin egokiak diren sustapen, planteamendu eta jarrera berrien sarrerari.

7.- JARDUERA PLAN BATERAKO OINARRIAK

Orain arte aurkeztu diren iritziak bildurik, eta hainbat aktore instituzional eta sektorialen sektorearenganako konbergentziari partikulariki jaramon eginez; baita sektorearen beraren transbertsalitatea elkarrekintza duen beste eremu batzuekiko, Jarduera Plan eraldatzaile baten oinarriak ezartzea instituzio arteko laguntza xirikatzetik igarotzen da, eta honela ekimen eraldatzaileen garapenerako foro bat sortzea.

7.1.- INSTITUZIO ARTEKO ARTISAUTZAREN FORO BATERANTZ

Topaketa publiko- pribatu baten moduan sortzen da, zeinak...


- Sektorearen Antolaketa instituzionalaren terminoetan, Eusko Jaurlaritza eta hiru Aldundien esfortzuak modu koherente batean biltzen dituen, hiru lurraldeetan planteamenduen koordinazioa faboratzen duen; eta erregulazio eta sustapen marko erakargarri eta estimulatzaile bat sortzen saiatzen den
- Prozesu horretan sektorearekin uztarturiko eremu sektorial ezberdinak gerturatu eta parte hartu arazten dieten (Merkataritza, Turismoa, Kultura, Hezkuntza...) eta sentsibilitate eta orientazio hauek euren sustapen eta erregulazio politikei batzen dieten dinamika koherente eta sinergiko batekin.
- Banaturiko enpresa eraldaketa prozesu batean inplikatzeko duen sektorea (profesionalen elkarteak edota prestigiodun eta lidertza ezaguna duten artisauak)
- Artisautzaren munduko sentsibilitate, esperientzia eta bisioak integratzen dituen, etorkizuneko alternatiba onenen bilaketa prozesu aberats eta anitz batean (diseinuaren profesionalen kolektiboak, artea, kultura, turismoa eta artisautzaren munduarekin loturiko beste disziplina batzuk)

Eta **erreflexio- ekintza foro** bat bezala funtzionatzen duen, bi aldeetako instrumentuak biltzen dituen...

- Erreflexiotik...: **Artisautzaren Mahaia** topagune, lehen aipaturiko aktore instituzional eta sektorialen erreflexio eta eztabaida toki egonkor bezala. Ondorioz, eremu honek orientaziorako eta aurre egin beharko zaion eraldaketa instituzional eta sektorialen animaziorako marko bezala lan egin beharko du.

Ekintzatik...: Sektoreko **Komite Dinamizatailea** edo **Proiektuen Faktoria** zeinak, “enpresa- sare” ikuspuntu batetik, eta proiektu konkretuen egitetik edota programen dinamizaziotik agente eraldatzaile bezala lan egiten duen. Aldaketa, modernizazio, berrikuntza eta orohar egungo merkatuen exigentzia konpetitiboetara moldatzeko inizatibak benetako eta ageriko era batean gauzatzen dituzten proiektuak.

INSTITUZIO ARTEKO EUSKAL ARTISAUTZAREN FOROA



7.1.1.- Artisautzaren Mahaia: Aldaketarako erreflexio agenda

Sektorearen adierazgarri diren agente instituzional eta sektorialen ordezkariak osaturikoa; eta muga eremuei –turismoa, hezkuntza,...- irekiriko osakera batekin, Artisautzaren Mahaia, osoko bileren edota jardunaldi tekniko espezifikoaren bitartez, erreflexio eta eztabaida foro bezala lan egingo luke, modu koherente eta koordinatu batean partaide izango diren agenteen interbentzioak (bakoitzaren jardura eremuan) inspiratuko dituelarik.

Aurrerapen moduan, Artisautzaren Mahaiko “erreflexio agenda”-ko edukin posibleak 4 Ardatz nagusitan egituratu dira, zeinetan sektorearen erronkei eta beharrei loturiko eztabaida eremuak identifikatzen diren. Honela lanerako markoa nolabait mugatzen duten Giltzarri diren Ideien Mapa definitzen da.

Aipaturiko Giltzarri diren Ideien Mapari buruz, Artisautzaren Mahaia lanerako agenda egituratu, lehentasunak esleitu eta berauen abordatzearen formula eta tenporalizazioa definituko ditu.

Giltzarri diren Ideien Mapa: ALdaketarako erreflexio agenda

1. ARDATZA Sektorearen antolamendua: marko erregulatzailaren perfektionamendua.	1.1. Eremua-	Lurraldekako dibertsitatea vs. Marko erregulatzailaren armonizazio eta zentzuzkotasuna
	1.2. Eremua-	Marko erregulatzailaren eraginkortasunaren hobetzea: enpresa egitea helburu bezala
	1.3. Eremua -	Beste sektoreekiko transbertsalitatea behar bezala
2. ARDATZA: Merkatuak eta enpresa konpetitibitatea	2.1. Eremua -	Merkataritza eta Marketing Kolektiboaren prozesuen hobekuntza
	2.2. Eremua -	Kudeaketaren profesionalizazioa
	2.3. Eremua -	Teknologia Berrien sartzea
	2.4. Eremua -	Artisau kolektiboaren etengabeko prestakuntza
	2.5. Eremua -	Belaunaldi ordezkaketa
3. ARDATZA: Beste sektore eta eremu profesionalekin elkarkidetzak	3.1. Eremua -	Kultura eta turismoa: Artisautza lurraldeko aktibo bezala
	3.2. Eremua -	Hezkuntza: Lanbide, diseinu eta artearen artean zubiak eraikiz
	3.3. Eremua -	Diseinua kalitate eta berrikuntza lanabes bezala
4. ARDATZA: Kolektibo bezala kohesioa eta kontzientzia hartzea	4.1. Eremua -	Elkarkidetzak formulak erraztu
	4.2. Eremua -	Kolektibo Informatu, dibulgatu eta sentsibilizatu

1. Ardatza: Sektorearen antolamendua: marko erregulatzailearen perfektionamendua.

Egungo sektoreari buruzko eskumen markoak erregulazio minifundista eta heterogeneoa marrazten du; eta ez du optimizatzen sektorearen muga dimentsioa beste sektore batzuekiko (turismoa, merkataritza, kultura, hezkuntza,...)

➤ **1.1.Eremua- Lurraldekako dibertsitatea vs. Marko erregulatzailearen armonizazio eta egokitasuna: Perfektionamendu alternatibak**

Sektoreari buruzko politika instituzionalen koordinazio eta adostasunari buruzko erreflexio beharra, “Aldundiak vs. Eusko Jaurlaritzak” eskumen eztabaida gainditzeko bere hortan, euskal artisauen taldearentzat armonizaturiko marko erregulatzaile baten garapenean arreta jartzeko eta zentzuzkotasuna erregulaturiko kolektiboaren ikuspuntu kuantitatibotik.

➤ **1.2.Eremua- Marko erregulatzailearen eraginkortasunaren hobetzea: enpresa egitea helburu bezala.**

Sektorearen estimuluaren eta lehiakortasun laguntzaren ikuspegi desberdinen elkarbizitzak, enpresa-tratamenduak arrakasta baldintza bezala kokatzearen beharri so egiten dioten ikasketak ateratzea uzten du. Bizkaiako kasua erreferentzia bezala.

➤ **1.3.Eremua- Beste sektoreekiko transbertsalitatea behar bezala**

Sektorearen beharrek eta aukerek eremu ezberdinen tratamendu ireki eta transbertsal baterantz seinalatzen dute –ekonomia, turismoa, merkataritza, kultura, hezkuntza...-, faboratzea eta aukera ematea beharrezkoa izango delarik lege antolamenduko eta sektorearen laguntza markotik.

2. Ardatza: Merkatuak eta enpresa lehiakortasuna

➤ **2.1.Eremua- Merkataritza eta Marketing Kolektiboaren prozesuen hobekuntza**

Lan aukeren identifikazioa norabide hirukoitz batean:

- Artisau tailerren bakarkako merkaturatzearen hobekuntza salmenta prozesuetan.
- Merkaturatze kolektiboko planteamenduak dituzten esperientzien promozioa.
- Sektorearen gizarte nabarmentasunaren estimulua –ikusgai egin-berezkoak zaizkion balore “identitarioengan” –kalitatea, gertutasuna, zinezkotasuna...- oinarrituriko “irudi” batetatik.

➤ **2.2.Eremua- Kudeaketaren profesionalizazioa**

Enpresarekin zerikusi handiagoa duten planteamenduen sarrera, zeinak, bere espezifikotasunaren sentsibilitatetik eta tamainuarekin erlazonaturiko mugetik – mikroenpresak-, sektorearentzat bideragarria den lehiakortasun modelo baten bilaketa errealista bizkortzen duten.

➤ **2.3.Eremua- Teknologia Berrien sartzea**

Teknologia Berrien sartzearen aldeko apostua bai diseinu- produkzio dimentsioan; bai enpresa kudeaketa dimentsioan; eta baita informazio, konexio eta komunikazioan ere. Azken aspektu honek potentzialitate handia aurkezten du tradizionala den artisau isolamendu eta indibidualismoaren gainditze prozesuan eta honen lanerako dinamikan eta kolektiboa sarean konektatzearen integrazioan.

➤ **2.4.Eremua- Artisau kolektiboaren etengabeko prestakuntza**

Etengabeko prestakuntzaren aldeko apostua, sektorearen lehiakortasunerako inizatiba desberdinen dinamizazio prozesuaren laguntza neurri nagusi bezala.

➤ **2.5.Eremua- Belaunaldi ordezkaketa**

Belaunaldien ordezkaketak sektorearen biziraupenerako behar dira, ez tailerren desagerpenari bukaera emateko soilik, baizik eta aldaketa kualitatiboaren terminoetan; inertzia batzuekin eta kontrako ohiturekin haustea posibilitatzeko, eta berrikuntza eta modernizazio lehiakorraren bidetik aritzeko.

3 Ardatza: Beste sektore eta eremu profesionalekin elkarkidetzaz

➤ **3.1.Eremua- Kultura eta Turismoa: Artisautza lurraldeko aktibo bezala**

Artisautzaren inkorporazio aktiboa lurraldekako eskaintza turistikoetan. Balioan jartzeko bide desberdinen esplorazioa:

- Leku eta erakargarritasun turistiko berezien optimizazioa artisau produktuen merkaturatze bide bezala.
- Artisau aktibitatearen ezaugarri etnografikoen mantentzea eta errekurso turistiko bezala bere erakargarritasuna ustiatzea.

➤ **3.2.Eremua- Hezkuntza: Lanbide, diseinu eta artearen artean zubiak eraikiz**

Artisautzaren planteamendu baterakorra lanbide –prestakuntza tekniko profesionala-, diseinu eta artearekin loturik; zubiak eraikiz bi munduen artean planteamendu iragazkaitz tradizionalak gaindituz.

➤ **3.3.Eremua- Diseinua kalitate eta berrikuntza lanabes bezala**

Diseinuan oinarrituriko berrikuntza eta kalitate dinamikak elikatzen dituzten, artisau eta diseinatzaileen arteko elkarkidetza proiektu eta eremuen sorketa.

4. Areatza: Kolektibo bezala kohesioa eta kontzientzia

Tematsuki adierazitako sektorearen dimentsio eta heterogeneitateak, planteamendu kolektiboetatik beste eremuetan bainan behar biziago eta premiazoago bat egiten dute.

➤ **4.1.Eremua- Elkarkidetza formulak erraztu**

Alternatiben aurkikuntzan eta behar komunetan finkatu, artisauen arteko erlazioak eta hurbilketa estimulatzeko formula bezala.

➤ **4.2. Eremua- Kolektiboa informatu, dibulgatu eta sentsibilizatu.**

Informazio, dibulgazio eta sentsibilizazio orokorreko aktibitate ezberdinen garapenak sektorearen kohesiorako eta batasunerako beste inizatiben laguntzarako lanabes garrantzitsua izan behar du; bidai edota bisita profesional bateratuen estimulua; beste esperientzien ezagutza eta aurkezpenetik igaroaz, ekitaldi sektorial korporatiboen ospakizunak, etab.

7.1.2.- Komite Dinamizatzailea/Proiektuen Faktoria

Erreflexio-ekintza lanerako prozesuaren markoan, sektorearen ezaugarriak bere behar eta larrialdiak, enfasia jardueran jartzea eskatzen du, modu zuzen eta berehalakoan. Honela, Artisautzaren Mahaiko erreflexio eta eztabaida etengabea minimizatu gabe, aproposa ematen du marko eraldatzailean aurrera egitea. Honela, beharrezkoa dirudi gai hauei buruz gogoeta egitea...

Artisautzaren kontzeptua “Enpresa kolektibo” bezala:

Artisau kolektiboaren tamaina txikiak eta enpresen dimentsio txikiak, **-gutxi eta txikiak-** ezaugarri murriztu garbiak osatzen dituzte sektorearentzat.

Hauek gainditzea “batera lan egin handiak izateko” esan nahi du; sareak ehundu kolaboratiboki; Euskal Artisautza “**batera lan egin, bakarrik egiterik ezin duguna egin ahal izateko**” horizontalki hazten den “enpresa kolektibo” bezala ulertu behar da.

Euskal Artisautza enpresa kolektibo proiektu bezala ulerturik, sarean, -eta ez artisau enpresen elkarte bat bezala-, proiektua “enpresa aterki” aktibo batean bilakatzen da euren beharrei asebetetzea emango dioten proiektuak dinamizatu eta aurrera ateratzeko; eta administrazioaren laguntza eta elkarrizketa optimizatzeko. Artisauen federakuntza bat, zeina bere bakarkako aktibitateak, dimentsio enpresarial kolektibo batean parte hartzen duen.

Aipaturiko iritzietatik atera daiteke planteaturiko dinamika kolektiboa, eta proiektuak ezaugarri hauek ditu:

- **Parte hartu nahi izatea: Atxikimendu boluntarioko proiektu bat.** Hau da, artisauaren integrazioarako gogo indibiduala eskatzen du, eta kideen artean jarriko diren arauen onartzea.

- **Parte hartzeko aukera izatea: Minimoen kultura duen proiektua.** Ekimena “bere burua laguntzen duenari laguntzeko” planteatzen da eta honek erakusten duena da proiektuan parte hartzeko beharrezkoa dela enpresa praktikan profesionalitate eta kalitate maila nahikoa aurkeztea; eta aspektu honek bi ezaugarri edo lan klabeetara igortzen du aurre baldintza bezala. Bi baldintzatzaile hauek beren espresio operatiboa aurkitzen dute ondorengo proiektuetan:

➤ **Oinarrizko proiektua.- Euskal Artisautzaren Labela (Euskal Artisaua) + Egiatzapen programa (Lehiakortasunaren Hobekuntza).**

Labela edo Euskal Artisautzaren marka generikoa beharrezkoa den pausua da deskribaturiko planteamendua garatzeko, bai kontzeptualki, eta operatiboki – eskuratzea parte hartzeko baldintza izango baitzen-; eta baita artisau multzo zabal batek adierazitako eskaera

Honen garapenak gainera bere erabilerarako gaituak dauden artisau enpresen (artisauen) “egiaztapen” mekanismoak epaitzearen beharra azalduko du. Egiatzapen prozesuak, egungo erregistroetako formula administratiboak gaindituz, eta “hirugarren aldearen” filosofiatik, lehiakortasun audit formulak sartuko lituzke tailerretan. Egoera honek, sektorearen **Lehiakortasun Hobekuntza Programa** baten instrumentazioa aurkeztuko luke labela lortzearen.

Artisau enpresen bikaintasunerako proiektu bat (Euskadiko Artisau egiaztagiria), zeinak homologazio bat izan ostean Euskal Artisautza marka generikoaren erabilera eta batera egiten diren proiektuetan parte hartzea bideratzen duen, eta bere kasuan, berau lortzeko ekoizpen unitatearen modernizazio eta eraldaketa (Egiaztagiria lortzeko laguntza tekniko eta lehiakortasun auditoria programa, edota berdina den lehiakortasunaren eraberritzea eta modernizazioa).

Labelaren Proiektuaren edo Euskal Artisautza Marka generikoaren inplantazioaren oinarrian, Komite Dinamizatzailleak ekimen desberdinak eramango lituzke aurrera sektorearen arazo eta beharrei aurre egiteko; edo aukeren optimizaziorako ekimenei irteera bat eman...

Ekoizpen unitateen “barnerantz” (barneko behar eta proiektuak): kudeaketaren profesionalizazio, instalazio eta ekipamenduen modernizazio, berrikuntza, diseinu, eraberritze eta Giza Baliabideen prestakuntzaren... terminoetan

“Kanporantz”: Merkaturatzea, kanporako proiektio eta marketing kolektiboaren terminoetan.

➤ **1. Proiektua: Zeharka merkaturatzen diren produktuen katalogoa**

Euskal Artisautzaren Bildumak. Diseinatzaile eta artisauen arteko elkartze puntu bezala ulertua, elementu komunak edo elkarbanatuak (serieak) dituzten hainbat aktibitate edo artisau sektoreei loturiko produktu ezberdinen bildumak sortuko lirateke.

Produktu serie horiek –generikoak edota espezifikoak- erakargarri diren hainbat puntu turistikoetan merkaturatu ahal izango lirateke, sektore turistiko-kulturalarekin elkarkidetzan lehenengo mailako merkaturatze sarea sortuz (2. Proiektua).

➤ **2. Proiektua: Puntu turistiko- kultural “beroei” erlazionaturiko Lurraldeko Zeharkako Merkataritza Puntuen Sarea.**

- Museoak eta etnografiarekin zerikusia izan dezaketen lekuak
- Nekazalturismo establezimenduak + Xarmadun hotelak
- Beste batzuk...

Puntu bero ezberdinetan implementatzeko, leku berezien diseinua, “Artisautza Txoko” bezala (Hand Craft Corners).

Salmenta zuzenaren bateragarritasuna katalogo bidezko edota Web bidezko salmentarekin, garrantzitsuak izan daitezkeen stock-en bilketaren beharra gutxitzeko (3. Proiektua).

➤ **3. Proiektua: Establezimendu gabeko Merkaturatze moduak**

Katalogaturiko eskaintzaren oinarriari buruz, zer planteatu ahal izango zen:

- Katalogo bidezko banaketa selektiboaren salmenta: Lurraldeko salmenta puntuen sarean banaturiko katalogoetan oinarrituz; bezero eraginkorrak “artisautzaren lagun” deituriko bezeroen base baten partaide izatera izan litezke, zeinak urteroko katalogoak jasoko zituzketen (Gabonetako kanpaina adibidez).
- Web euskarrian egindako Katalogo bidezko salmenta: formula honek lehen aipaturiko planteamendua merketu eta azkartuko luke.
- Web bidezko salmenta zuzeneko erak, katalogaturiko ekoizpenetik at, artisau bakoitzaren eskutik (5. Proiektua ikusi).

➤ **4. Proiektua- Merkatu/Azoka Sarea:**

Aire libreko edota ez sedentarioak diren artisau azoka eta gertaeren homogeneizazioa eta duintasuna ematea.

- Merkataritza Sailaren laguntzarekin aire librean dauden eta ez sedentarioak diren udal merkatuen eraberritze eta modernizazio programa + Irudia, laguntzarako ekipamendua eta artisau Azoka eta Merkatuen planteamendu informatibo eta operatiboak bateratzeko artisau baliabide komunen mobilizazioa.
- Euskal Artisautzaren kanporako proiektzioa estatuko edota beste herrialdeetako gertaeretan, Euskal Artisautzaren baterako presentziaren eskutik.

➤ **5. Proiektua: - Enpresa artisauen aldaketarako Laguntza Tekniko eta Tutorizaziorako Programak**

Laguntza instituzionalen kanalizazioaren markoan garatu beharrekoa

- Berrikuntza, Kalitate eta Diseinu programa: Artisau Tailerrei laguntza teknikoa, euren produktuen, enbalaien eta merkatal aurkezpenaren diseinua eguneratzeko. Programak sektorializaturiko formula bat hartu lezake, sektore espezifiko bakoitzean diseinatzaile ezberdinek lan egingo zutelarik –metala, egurra...- honela sektore unitate bereiztuak konfiguratuko lirateke; esperientzien trukaketa euren artean, etab.
- Merkaturatzearen Laguntza Teknikorako programa: Kolektibo profesionalen eta bezeroen salmentarako erabiltzen diren merkaturatze bide eta laguntzeko baliabideen eraberritze eta hobekuntzarako prozesuen tutorizazio eta diagnosirako, enpresa artisauari zuzenduriko laguntza teknikorako lerroa sortzea.

- Enpresaren kudeaketan Laguntza Teknikorako programa: finantza kontabilitatearen kudeaketarako prozesuei loturiko antzeko laguntza teknikorako lerroa, ekipamendu eta instalakuntzen eraberritzea, etab.
- Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Sarrerarako Laguntza Teknikoko Programa: Artisau aktibitatean lanabes informatiko eta teknologia berrien inkorporazio prozesuei loturiko antzeko laguntza teknikorako lerroa.

➤ **6. Proiektua: Birziklapen Profesionalaren Urteroko Plana (HOBETUZ):**

Artisauentzat bereziki zuzenduriko prestakuntza eskaintzaren Urteroko Plan baten diseinu eta dinamizazioa, zeina euskal etengabeko prestakuntzaren dispositiboaren bitartez bideragarria izan daitekeena.

➤ **7. Proiektua: Tutorizaturiko Oinordetza**

Artisau tailerretako soldatapeko langileei zuzenduriko “tutorizaturiko oinordetza” prozesuen dinamizazioa (edota beste kasuetan arte ederretako eskoletako ikasleak, lanbide heziketako ikasleak, etab.). Frantziako Arte eta Lanbideen Nazio Ganberak -CNAM¹⁶- erabilitako esperientzietan oinarriturik.

➤ **8. Proiektua: “Arte Eskolatik Artisautza Tailerrera”:**

Kolektiboaren belaunaldi eta kultur eraberriketean laguntzen duen irtenbide profesional erakargarri eta bideragarri bat bultzatzu eta bi munduak gerturatzearren, arte eskola (LH zentruak, arte ederrak...) eta artisau tailerren arteko lankidetzak akordioak.

¹⁶ Artisauaren merkataritza fondoaren balorazioa; enpresa proiektua; oinordekoa eta bezeroak: oinordekoa eta enpresa proiektua eta uzten duen artisauaren eta oinordekoaren arteko hurbilketa prozesuei konpainia, laguntza tekniko eta modelizazioari loturiko esperientzia.

➤ **9. Proiektua: Euskal Artisautzaren Urteroko Saria:**

Urteroko errekonozimendua artisau baten ibilbide profesionalari. Sari honek kolektiboa (bazkari edo zeremonia ludiko batez lagundurik) elkartuko luke, eta errekonozimendua emango lioke sarituaren artisau ibilbide eta lan profesionalari, honela gizarte eta merkatuaren aurrean artisautzari nabarmentasuna emanaz.

➤ **10. Proiektua: Artisau aktibitateen errepertorioa**

Irauten duten artisau aktibitate tradizionaleri buruz jadanik dauden inbentarioen sistematizazioa edota Inbentarioa bera osatzea; honela hauen aukera eta balorizazio ekonomiko- kulturalaren posibilitatearen terminoetan irakurketa bat egitea erraztuz.

➤ **11. Proiektua: Atzerrian, artisau prestakuntzarako bekak eta laguntzak**

Kolektiboaren tamaina txikia izanda, honelako inbertsioen inpaktuak eragin erlatibo handia izan dezake.

ERANSKINA

**SEKTOREAREN ETENGABEKO BEHAKETARAKO IRITZI
METODOLOGIKOAK**

ERABILITAKO SEKTORERA GERTURATZEKO GALDEKETA

SEKTOREAREN ETENGABEKO BEHAKETARAKO IRITZI METODOLOGIKOAK

Euskadiko Artisau Industrien azterketa honek, sektorean erlatiboki izaera aintzindaria duenetik, bertako zifra handiak kokatzen ditu; bere entres eta enpleguak karakterizatu eta dimentsionatu egiten ditu; eta etorkizunerako gogoeta eta proposamenak ahalbideratzen dituen lehikaortasun erretratu bat eskaintzen du.

Zentzu honetan, etorkizuneko jarraipen bat ahalbideratzen duen erretratu edota argazki bat osatzen du. Ikuspuntu honetan, ondoren, haserako informazio honen baliozkotzetik, sistematikoki sektorearen jarraipen bat egiteko iritzi batzuk aurkezten dira. Honela bi lan lerro osagarri iradokitzen dira:

1. Hiru Foru Aldundietako artisau erregistroen jarraipen dinamika.
2. Sektorearen jarraipenerako Panel inkesta

1.- Hiru Foru Aldundietako artisau erregistroen jarraipen dinamika

Artisau kolektiboaren identifikazio terminoan, sektorearen konplexutasuna ikusirik, Aldundietako erregistroek, -ezartzen dituzten mugekin- artisau enpresa kopuruaren jarraipenerako eta euren sortze eta desagertzea baloratzeko iturri egonkor, ofizial eta sistematikoa osatzen dute.

2.- Sektorearen jarraipenerako Panel inkesta

Era osagarrian, enpresa ezaugarrien -bere lehiakortasun profila- jarraipenak, lan honetan egin diren moduko inkesta/elkarrizketa bidezko enpresenganako hurbilketa zehatz bat eskatzen du. Honi buruz esan ondoren termino operatiboetan eta edukin terminoetan hainbat orientazio planteatzen direla.

2.1.- Berriztapena duten aldizkako "panel" izaera

Ohikotasunarekin, ezaugarri hauetako jarraipen prozesuek -etengabeko behaketa- behaketaren egonkortasuna ingurunearenganako moldagarritasunarekin uztartzen saiatzen dira enpresa berrien sartzearen bidez. Horretarako normalean "panel" baten bidez edo enpresen lagin egonkor (berdinak) batekin egiten da lan, zeinak aldizkako -adibidez urterokoa- inkestazio baten objektu diren, eta hauei era berean aldizkakoa den - dibidez urteroko %20- berritze edo aldaketa partzial baten kriterioa ezartzen zaie. Honela eta urteko lan hipotesi baten gainean, 100 enpresetako "panel bat, urteroko %20ko berritzearekin, enpresa bat 5 urtetan zehar izango da behaketa unitate.

Honelako ezaugarriak dituen lanerako metodologia batetik abiatuz, jarraipenerako lana ondoko kriterioekin diseinatzea eskatzen da:

- Biurteko aldizkakotasuna
- 150 enpresetako lagin orientagarria

2.2.- Jarraipenerako giltzarri diren edukinak

Erreferentzizat azterketan aplikaturiko sektorearen hurbilketarako inkestaren lana hartuaz, jarraipenerako ondorengo intereseko edukin eta aldagaiak planteatzen dira:

- **1 Atala: Tailerraren identifikaziorako datuak + 12 Atala: Aktibitatea garatzen deneko Forma Juridikoa.** Elkarteen formak jasaten duten eboluzioan zentratuak bereziki.
- **2 Atala: Establezimenduaren ezaugarriak.** 2.3. Epigrafea zeinak tailer, salmenta sala eta eratsiriko etxebizitzaren izatea identifikatzen duen.
- **3 Atala: Aktibitatearen titularra.** Aktibitateak aktibitate nagusi edota osagarria osatzen duen jakiteko identifikazioareki loturik. Eta artisau berrien kasuan adina, prestakuntza eta sexua.
- **4 Atala: Enplegua.** Bere osotasunean

- **7 Atala: Merkaturatzearen ezaugarriak:** Bere osotasunean
- **8 Atala: Kudeaketarako ekipamendu teknologikoa.** Ordenagailuari buruzko 8.1. Epigrafea
- **10 Atala: Etorkizuneko indikazaileak.** Enpresa aukerak 10.2. Epigrafea
- **11 Atala: Asoziazionismoa.** 11.1. Epigrafea, Ikartze kolektiboetako partaide izateari lotua bereziki

Jarraipenaren inplementazio egoki batetarako, logikoki aldagai horiek erreferentzia orientatibo bat ezartzen dute, zeina xehetasun handiagoko dinamika batetik adostua izan behar behar den.

4.- ENPLEGUA

4.1.- Aipa ezazu ondoren zurekin batera lan egiten duten pertsona kopurua, eta bana itzazu dedikazio (lanaldi osoa/ partziala) eta lan- erlazio/ laguntza familiarren arabera:

	LANALDI OSOA				LANALDI PARTZIALA			
	Guztira Lanaldi Osoa	Lan-Erlazioa		Laguntza familiarra	Guztira Lanaldi Partziala	Lan-Erlazioa		Laguntza Familiarra
		Formala	Informala			Formala	Informala	
Gizonezkoak								
Emakumezkoak								
GUZTIRA								

4.2.- Guztizko lanpostuak (aktibitatearen titularrarena kontuan hartuta): |__|__|

4.3.- Aktibitatearen titular bazala, Gizarte Segurantzzenbezala kotizatzen duzu

- Autonomoa era jarraian urte osoan zehar
 Autonomoa era ez jarraian eta hilabete batzuetan zehar
 Soldatapekoa
 Ez du kotizatzen

5.- PRODUKTUAK

5.1.- Egitura ezazu zure produkzioa produktu lerro ezberdinetan (5 gehienez) eta balora ezazu bakoitzak duen garrantzia (%) urteko salmenta kopuruaren barnean:

PRODUKTU LERROA

- 1**
2
3
4
5

SALMENTA % URTEKO:

	%
	%
	%
	%
	%
100%	

GUZTIRA

5.2.- Azken 3 urtetan, eta honako arloetan, aldaketa eta berrikuntza adierazgarriak barneratu ditut:

- Diseinua
 Materialak
 Fabrikazio teknikak
 Beste batzuk (Zehaztu)

6.- EKIPAMENDUA/ INSTALAZIOAK

6.1.- Nola baloratuko zenuke zure produkzio ekipamendua? (makineria/ lanabesak)

- Zaharkitua Normala Modernoa

6.2.- Epe laburrera, produkzio ekipamendua hobetu eta berritzeko inbertsioak egitea beharrezkoa izango dela pentsatu al duzu?

- Bai Ez Ed/Ee

6.3.- Nola baloratuko zenuke oraingo instalazioen tamaina? Eta bere egoera?

- Eskasa Eskasa
 Nahikoa Onargarria
 Handia Ona

6.4.- Orohar, zure instalazio eta ekipamenduarekiko asebetetzea.....da.

- Altua Erdizkakoa Baxua

6.5.- Inoiz pentsatu al duzu lekualdaketa batean?

- Bai Ez Ed/ee

7.- MERKATURATZEAREN EZAUGARRIAK

<p>7.1.- Salmenta zuzena.....bitartez egiten da</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tailerra EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Denda propioa EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Enkarguak EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Merkatuak EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Azokak EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Besteak EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> <p>7.3.- Zure establezimenduak salmenta zuzena egiten du.....bitartez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Handizkako EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Txikizkako EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Komisionisten EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Elkarlanean aritzen diren tailer/ enpresen bitartez EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> <p>7.4.- Zure establezimenduak.....egiten al du?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Exportazio zuzena EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> - Exportazio ez zuzena EZ <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> 	<p>7.2.- Banatu portzentualki zure salmentak, erabilitako merkaturatze kanalen artean.</p> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="width: 80%;"></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> </table> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="width: 80%;"></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> </table> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr><td style="width: 80%;"></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> <tr><td></td><td style="text-align: right;"> _ _ %</td></tr> </table> <p style="text-align: center;">GUZTIRA 1 0 0 %</p> <p>7.5.- Salmenta zuzenak Merkatu eta Azoketan egiten badituzu, aipa itzazu mesedez lurralde bakoitzeko adierazgarrienak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Araba <input type="checkbox"/> Bizkaia <input type="checkbox"/> Gipuzkoa <input type="checkbox"/> Nafarroa <input type="checkbox"/> Beste autonomia-erkidegoak <p>7.6.- Ondorengo merkatal harrimintarik ba al duzu?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Marka edo izendapen komertziala <input type="checkbox"/> Enpresa txartela <input type="checkbox"/> Produktu katalogoa <input type="checkbox"/> Publizitate liburuxkak <input type="checkbox"/> Salneurrien zerrenda <input type="checkbox"/> Web orria www. _____ <input type="checkbox"/> Beste batzuk (zehaztu) <p>7.7.- Sustapen edota publizitate aktibitatearik egiten al duzu?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Kokapenaren informazio kartelak <input type="checkbox"/> Erakusketak <input type="checkbox"/> Sektoreko katalogo, gidaliburu, etab.-etan presentzia <input type="checkbox"/> Lehiaketa eta Sarietan parte hartzea. <input type="checkbox"/> Sektorean proiektatzeko Azoka eta bilkura profesionaletan <input type="checkbox"/> Besteak (zehaztu) 		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %		_ _ %
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								
	_ _ %																								

8.- KUDEAKETAN EKIPAMENDU TEKNOLOGIKOA

<p>8.1.- Ordenagailurik ba al duzu?</p> <p><input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> Bai → 8.2.- Erabiltzen al duzu?</p> <p>8.3.- Zertarako erabiltzen duzu?</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Enpresaren kudeaketa eta aktibitatea merkaturatzeko <input type="checkbox"/> Produktuen diseinurako <input type="checkbox"/> Komunikaziorako (e-mail) <input type="checkbox"/> Informazioa lortzeko (internet) <input type="checkbox"/> Beste batzuk 	<p><input type="checkbox"/> Bai, asko <input type="checkbox"/> Bai, gutxitan <input type="checkbox"/> Ez</p>
---	--

